

# EUSKAL DANTZA
## LA DANZA VASCA

08

Oier Araolaza Arrieta

BASQUE.

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA

**EUSKAL DANTZA**
LA DANZA VASCA



Oier Araolaza Arrieta

BASQUE.

1
Euskara
La lengua vasca

2
Literatura
Literatura

3
Musika klasikoa
Música clásica

4
Euskal kantagintza: pop, rock, folk
La canción vasca: pop, rock, folk

5
Artea
Arte

6
Zinema
Cine

7
Arkitektura eta diseinua
Arquitectura y diseño

**8**
**Euskal dantza**
**La danza vasca**

9
Bertsolaritza
Bertsolarismo

10
Tradizioak
Tradiciones

11
Sukaldaritza
Cocina

12
Antzerkia
Teatro

**BASQUECULTURE.EUS**
THE GATEWAY
TO BASQUE CREATIVITY
AND CULTURE

**Etxepare Euskal Institutuak sortutako bilduma honek hamabi kultura-adierazpide bildu ditu. Guztiak kate bakarraren katebegiak dira, hizkuntza berak, lurralde komunak eta denbora-mugarri berberek zeharkatzen dituztelako. Kulturaren eskutik, euskararen lurraldean tradizioa eta abangoardia nola uztartu diren jasoko duzu. Kulturaren leihotik, bertakoaren eta kanpokoaren topalekua erakutsiko dizugu. Kulturaren taupadatik, nondik gatozen, non gauden eta nora goazen jakiteko aukera izango duzu. Liburu sorta hau abiapuntu bat da, zugan jakin-mina eragin eta euskal kultura sakonago ezagutzeko gogoa piztea du helburu.**

Esta colección creada por Etxepare Euskal Institutua reúne doce disciplinas culturales. Todas ellas están entrelazadas porque comparten lengua, territorio e historia. De la mano de nuestra cultura, te invitamos a ser testigo de la fusión entre tradición y vanguardia, del mestizaje de lo propio y lo foráneo, te invitamos a conocer, en suma, de dónde venimos, dónde estamos y hacia dónde vamos. Este conjunto de libros es un punto de partida cuyo objetivo no es otro que despertar tu curiosidad.

# EUSKAL DANTZA
## LA DANZA VASCA

Oier Araolaza Arrieta

| | | |
|---|---|---|
| 10 | Euskal dantza, euskaldunon gorputz-hizkuntza | La danza vasca, expresión corporal de los vascos |
| 14 | \`Pas de basque´ | \`Pas de basque´ |
| 20 | Neguko festak, inauteriak dantzan | Fiestas de invierno, danzas de carnaval |
| 28 | Negua joan, uda etorri, eta dantzan berriz | Tras el invierno, la temporada de danzas sigue en verano |
| 36 | Dantza tradizionalen loraldia | El florecimiento de las danzas tradicionales |
| 48 | Dantzaldi gidatuak eta dantzazaleak | Bailes guiados y la pasión por el baile |
| 50 | Euskal dantzarien diaspora | La diáspora de los \`dantzaris´ vascos |
| 56 | Dantza-maitaleak | Amantes de la danza |
| 58 | Sortzaile glokalak | Creadores glocales |
| 64 | Dantza-egutegia | Calendario de danzas |
| 68 | Bibliografia laburra | Bibliografía breve |

Nola lortu du Mendebaleko Europako berezko hizkuntzen artean indoeuroparra ez den bakarrak bere lekua hartzea XXI. mendean? Zertan datza euskal kultura gaur egun eta zertan bereizten da besteengandik? Zer presentzia merezi du nazioartean?

Liburu hauen bidez, Etxepare Euskal Institutuak erantzun batzuk proposatu nahi ditu, beste kultura eta identitate batzuei eskua luzatzeko asmoz. Elkar ezagutzea baita elkar estimatzeko eta ulertzeko modu bakarra. Ongi etorri.

Irene Larraza Aizpurua
ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUKO
ZUZENDARIA

¿Cómo ha logrado la única lengua autóctona de Europa Occidental que no es de origen indoeuropeo ocupar un lugar propio en el siglo XXI? ¿En qué consiste la cultura vasca hoy y en qué se diferencia de otras? ¿Qué presencia internacional merece?

A través de esta colección de libros Etxepare Euskal Institutua quiere proponer una serie de respuestas, con el fin de tender la mano a otras culturas e identidades. Porque conocernos mutuamente es la única manera de apreciarnos y entendernos. Ongi etorri.

Irene Larraza Aizpurua
DIRECTORA DE
ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA



1

# Euskal dantza, euskaldunon gorputz-hizkuntza

**1.** Aurreskua. Kezka dantza-taldea. Eibar, 2017.

Tokian tokiko dantza tradizionalekin hasi eta abangoardiako antzerki fisikoraino, euskal dantzak nortasun bereziko eskaintza zabala eta anitza du dantzaz gozatu nahi duenarentzat. Euskaldunek beren kulturarekiko erakutsi duten atxikimenduari esker, tradiziozko dantza-errepertorio aberatsak eta ikusgarriak iraun du Euskal Herrian, eta gizarte-aldaketei egokitu ahal izateko bere burua berritzen asmatu du. Ohiko festa-egutegian txertatuta, ikuskizun-programazioan integratuta edo gizarte mediatikoaren protokolo-beharrei erantzunez, dantza bizi-bizi dago euskal kulturaren egunerokoan.

Kultura orotan, gizarte guztietan, ahozko hizkuntzarekin batera bada beste lengoaia bat komunikatzeko, sentitzeko, adierazteko, konpartitzeko, azken batean, bizitzeko erabiltzen duguna: dantza. Gorputza patroi erritmikoen arabera mugimenduan jarri eta, hitz egiteko beharrik gabe, komunikazioaren txinparta pizten da. Kultura guztietan dantzatzen dira emakumeak eta gizonak, eta euskaldunek ere badute dantzarako sena, hots, gorputza musikarekin astintzeko premia. Ahozko hizkuntzaren biziberritzea hauspotu duten bezala, gorputzaren lengoaia ere nabarmen biziberritu dute. Hala, egungo euskal dantzariak koreografia-ondare aberatsa eta sorkuntzarako dantza-lengoaia garaikidea eskura ditu.





# La danza vasca, expresión corporal de los vascos

**1.** *Aurresku*. Grupo de danza Kezka. Eibar (Gipuzkoa), 2017.

Desde los bailes locales hasta el teatro físico de vanguardia, las danzas vascas proporcionan una variada y amplísima oferta de gran personalidad a quien quiera disfrutar de ellas. Gracias al vínculo que los une a su cultura, los vascos y las vascas cuentan con un rico y espectacular repertorio de danzas tradicionales cuya constante reinvención ha permitido adaptarlas a los cambios sociales que ha experimentado el País Vasco a lo largo del tiempo. Ya sea como parte del calendario de fiestas, de la programación cultural o como respuesta a las necesidades de protocolo de la sociedad mediática en la que vivimos, lo cierto es que la danza es hoy una de las expresiones culturales de mayor vitalidad de nuestro país.

En todas las culturas y sociedades, la danza ha sido y es, junto con la lengua, una de las principales vías de expresión a través de la cual se comunican, manifiestan, sienten, comparten y, en definitiva, viven los seres humanos. Al mover el cuerpo siguiendo patrones rítmicos, sin tener que recurrir a la palabra hablada, se enciende la chispa de la comunicación. No hay cultura en todo el mundo en la que los hombres y las mujeres no se expresen por medio del baile, y la vasca no es una excepción: aquí la gente también ha tenido el instinto y ha sentido la necesidad de mover el cuerpo al ritmo de la música. Al igual que la lengua oral, los vascos y las vascas también han impulsado de forma extraordinaria la renovación de la expresión corporal, y lo han hecho gracias a su afición por la danza. Así pues, en la actualidad, los *dantzaris* tienen a su disposición un magnífico legado coreográfico y un lenguaje artístico de primer orden.

Esta afición por la danza ha presidido hasta hoy las fiestas, celebraciones y ceremonias de todos los pueblos y ciudades del país. Además, nuestra poderosa cultura coreográfica ha dado lugar a un conjunto de grandes bailarines y bailarinas que, tanto en la modalidad de las danzas tradicionales como en la de la danza clásica o contemporánea, se pasean con éxito por todo del mundo. De la misma manera que en la primera compañía de baile creada en París en el siglo XVII había bailarines vascos, los hay en la actualidad en las grandes compañías internacionales de ballet.

Muchas observaciones acerca de nuestra afición por la danza han acabado convirtiéndose en tópicos a fuerza de repetirlas. Desde que, en el siglo II antes de Cristo, Estrabón describiera a los hombres y a las mujeres del norte de la península ibérica como especialmente dados al baile, la danza ha sido profusamente mencionada por todos los viajeros que han visitado nuestro país. Los tópicos, sin embargo, incluso aquellos que reflejan fielmente la realidad, ocultan tanto como iluminan. Así, el que la lengua vasca, el euskera, tenga un origen tan remoto y una estructura tan diferente a las lenguas que la rodean podría ser la causa del intento, por medio de tópicos, de distinguir las danzas tradicionales vascas del resto de danzas tradicionales.

En el rico contexto europeo, todas las danzas tradicionales, incluidas las vascas, comparten características y tienen rasgos distintivos. Si

Dantzarako zaletasun horrek tokian tokiko festak, ospakizunak eta errituak dantzaz bete ditu gaurdaino. Kultura koreografiko indartsuak dantzari trebeak eman ditu, hala euskal dantza tradizionalean ari direnak nola dantza klasikoan eta garaikidean arrakastaz munduan barrena dantzari ari direnak. Parisen, XVII. mendean, sortu zen lehen dantza-konpainian euskal dantzariak egon ziren moduan, gaur egun nazioarteko ballet-konpainia handietan ari dira baita ere euskal dantzariak.

Euskaldunon dantzarako zaletasuna erakusten duten zenbait aipu, erabiliaren erabiliaz, topiko bihurtu ditugu. Estrabonek, Kristo aurreko II. mendean, Iberiar penintsulako iparraldeko herritarrei buruz idatzitakoetan dantzan irudikatu zituen, eta harrezkero bidaiariek euskaldunoi buruz egindako deskribapenetan dantza maiz agertu da. Baina topikoek, oinarri zuzena duten kasuetan ere, eremu bat argiztatu ahala beste bat itzalez betetzen dute. Euskaldunon hizkuntza, euskara, inguruko hizkuntzekiko egitura aldetik eta jatorriz berezia dela jakinik, euskal dantzari ere topikoen bidez nolabaiteko apartekotasuna egotzi zaio.

Europako dantza tradizionalen testuinguru aberatsean, euskal dantzak ezaugarri komunak eta bereiziak ditu. Festa-egutegia, neguko eske-errondak, mozorroen arketipoak, inauterien ospakizun-egiturak eta koreografia-generoak aintzat hartuta, Europako mendebalde osoa biltzen duen dantzen, musiken, festen eta tradizioen familia handiaren lehengusu-lehengusinak garela ohart gaitezke. Kultura tradizional zabal eta aberats bakarra konpartitzen dugu, nahiz eta bakoitzak bere ezaugarri propioak dituen. Bereizgarri horietako batzuk asko indartu ditu euskal dantzak XX. mendean eta, ondorioz, erabat desberdinak garela sinestera iritsi gara.

Erromantizismoaren eta nazionalismoaren eraginez, azken ehun urteotan kultura tradizionalarekiko interesa piztu, eta folklorea babesteko saiakerak egin dira. Euskal dantzak berpiztuak, lurperatuak, eraldatuak, berreginak, berreskuratuak eta berrasmatuak izan dira behin eta berriz. Gizarte mediatikoan eta globalizatuan, moda eta periferia konplexuen eraginez, berdintzeko eta homogeneizatzeko indarrak dira nagusi. Horien guztien aurrean, desberdintasunak eta marka bereizgarriak nortasunari eusteko defentsak bilakatu dira. Hala, tradiziotik datozen dantzek herrien nortasun bereziak irudikatzeko funtzioa bereganatu dute. Berritzearen zoroak liluratzen gaitu, baina sustraietara itzultzen gara behin eta berriz uniformetasunaren itsasoan bereiziko gaituzten ezaugarrien bila.

**2.** *Oyarzun*. Fandangoa Oiartzunen, 1839.





consideramos el calendario de fiestas, las rondas de cuestación de invierno, los arquetipos en los que se basan los disfraces, la estructura de los carnavales o los géneros coreográficos, nos damos cuenta de que los bailes, la música, las fiestas y las tradiciones de todo el occidente europeo forman una gran familia. Todos compartimos la misma cultura tradicional, vasta y diversa, aunque cada cual tenga sus características propias. En el caso del País Vasco, algunos de estos rasgos, que fueron notablemente reforzados en el siglo XX, hicieron creer que nuestras danzas eran absolutamente genuinas.

Por influencia del romanticismo y el nacionalismo, en los últimos cien años ha crecido el interés por la cultura tradicional y ha habido varios intentos de protección del folclore. Las danzas vascas han sido resucitadas, enterradas, transformadas, modificadas, reconstruidas, recuperadas y reinventadas una y otra vez. En nuestra sociedad mediática y globalizada, siempre bajo el influjo de las modas y de una periferia cada vez más compleja, imperan fuerzas igualadoras y homogeneizadoras. Frente a ellas, el querer diferenciarse constituye una auténtica defensa de la identidad de los pueblos, cuya representación, precisamente, es asumida a menudo por las danzas tradicionales. Nos embelesa lo nuevo, pero siempre retornamos a nuestras raíces en busca de algo que nos distinga en medio de un mar de uniformidad.


2

**2.** *Oyarzun*. Fandango en Oiartzun (Gipuzkoa), 1839.


3

**3.** Euskal emakumea dantzan, XVI. mendea.

# 'Pas de basque'

Ezpata-dantzak, trokeo-dantzak eta soka-dantzak dantza-molde zabalduak izan dira XVI. mendetik aurrera Euskal Herrian. Erritual, protokolo, ospakizun berezi, Corpus egun, San Joan eta tokian tokiko santutegiaren araberako jai-egun handienetan ezpata-dantzak izan dira izar distiratsuenak. Erritualaren ondoko festan zein iganderoko olgetan, euskaldunek soka-dantzak dantzatzeko zaletasuna izan dute.

Protokolorako nahiz festarako, ondo prestatutako dantzariak izango ziren 1660ko maiatzean Luis XIV.ak Lapurdin ikusi





# 'Pas de basque'

**3.** Mujer vasca bailando, siglo XVI.

En el País Vasco, las danzas de espadas *(ezpata-dantza)*, de troqueo *(trokeo-dantza)* y de cuerdas *(soka-dantza)* han sido las variantes más difundidas desde el siglo XVI. La *ezpata-dantza*, por ejemplo, ha sido la protagonista indiscutible de multitud de ritos, protocolos, ceremonias, días del Corpus, fiestas de San Juan y fiestas locales de todo el país, en tanto que la *soka-dantza* se reservaba para la fiesta inmediatamente posterior o para el asueto de los domingos.

En mayo de 1660, Luis XIV pudo comprobar la destreza de los *dantzaris* que bailaron ante él en San Juan de Luz, en Lapurdi, durante los actos protocolarios y festivos que se celebraron con ocasión de la boda de estado que lo unió en matrimonio con María Teresa de Austria y de las nupcias que se organizaron en su honor. Según cuentan, el Rey Sol se llevó a París un muy buen recuerdo de aquel grupo de *dantzaris*, y al año siguiente, en 1661, convocó a algunos de ellos para que participaran en la recién creada Real Academia de Danza. ¿Acaso sea esa la razón de que la voz «paso vasco» (*pas de basque*) esté recogida en la nomenclatura de la Academia? Sea como sea, lo cierto es que no hay escuela de ballet en todo el mundo en la que no se baile el así llamado *pas de basque* o *saut de basque.* Se trata del único paso de baile que debe su nombre a su país de procedencia.

Más allá de estas llamativas referencias terminológicas, sin embargo, poco se sabe acerca de la huella que dejaron aquellos *dantzaris* en la primera academia de baile de París o de su influencia en la historia del ballet. A menudo se ha hecho hincapié en el parecido de los bailes de Gipuzkoa y Zuberoa con la danza académica para especular con la idea de que las danzas vascas pudieron servir de base para la creación del ballet clásico. Pero, en este punto, debemos reconocer que la sombra del mito es más alargada que el hilo de la investigación, y que disponemos de muy pocos datos para poder sacar ninguna conclusión.

En todo caso, de lo que no cabe duda es de que efectivamente existen parecidos, y no solo entre las danzas vascas y la danza clásica, sino también entre estas y las danzas *morris* de Inglaterra, la escuela bolera de España, las danzas de carácter de la Provenza o el *Căluș* de Rumanía, que presentan asombrosas similitudes, tal y como se desprendería de un minucioso estudio de sus pasos. Como ha explicado Juan Antonio Urbeltz, en las academias militares de los siglos XVIII y XIX se observan el mismo repertorio y la misma didáctica de la danza que los que desarrollaron los maestros de baile de las cortes europeas a partir del siglo XVI, y que también describió el zaldibiarra Juan Inazio Iztueta en su libro sobre las danzas guipuzcoanas, publicado en 1882.

El movimiento romántico, primero, y el nacionalista, después, promovieron la recuperación de un tipo de música y danza cuya decadencia había comenzado con la crisis de la sociedad agraria. Las fiestas vascas de finales del siglo XIX y de comienzos del XX, con sus magníficos programas de actividades, sirvieron para dar muestra de parte de ese legado de la cultura tradicional que estaba a punto de desaparecer. En la misma época, el Partido Nacionalista Vasco elaboró y difundió un programa lúdico-simbólico como complemento de su programa político. Sabino Arana, por ejemplo, convirtió la *dantzari-dantza,* una danza de espadas originaria del Duranguesado (Bizkaia), en una poderosa vía de representación de la identidad vasca, que, a través de la red de Batzokis, puso a bailar a toda la juventud del país.

Por un lado, desde el folclore, con Resurrección María Azkue y José Gonzalo Zulaika o *Aita Donostia* a la cabeza, se pusieron manos a la obra para rescatar o al menos intentar recuperar una cultura que estaba al borde de la desaparición.

zituenak. Frantziako erregearen eta Austriako María Teresaren artekoa estatu-ezkontza izan zen, eta neurriko ezteiak ospatu zituzten Donibane Lohizunen. Diotenez, bertan ikusitako dantzarien oroitzapena Parisera eraman zuen *Eguzki Erregeak* eta, urtebete beranduago, 1661an, dantzaren akademia sortu zuenean, hainbat euskal dantzari deitu omen zituen bertara. Horren ondorio ote dira dantza klasikoaren izendegian ageri zaizkigun «euskal urratsak»? *Pas de basque* edo *saut de basque* ballet-eskola guztietan dantzatzen dira. Dantza klasikoaren izendegian jatorrizko izendapena duten urrats bakarrak dira.

Ez dakigu Pariseko lehen dantza-akademia horretan aritu ziren euskal dantzariek zer-nolako arrastoa utzi zuten. Dantza klasikoan jasotako izen deigarri horiez gain, ezer gutxi dakigu balletaren bilakaeran euskaldunek izan zuten eraginaz. Euskal dantza ballet klasikoaren *ama* izan daitekeela argudiatzeko, maiz Gipuzkoako eta Zuberoako dantzek dantza akademikoarekin dituzten antzekotasunak azpimarratzen dira. Baina aitortu behar dugu gaiari buruzko ikerketen soka baino luzeagoa dela mitoaren itzala eta, aipatutako datu urriez harago, horri buruz ezer gutxi dakigula.

Nolanahi ere, koreografia-antzekotasunak daudenik ez da zalantzan jartzen, eta ez bakarrik euskal dantza eta dantza klasikoaren artean. Ingalaterrako Morris dantzak, Espainiako Eskola Boleroa, Proventzako *karaktere* dantzak edo Errumaniako Călușari dantzak urratsez urrats aztertuz gero, harrigarriak dira aurki daitezkeen antzekotasunak. Juan Antonio Urbeltzek azaldu duenez, XVI. mendetik aurrera Europako gorteetan dantza-maisuek jorratzen zuten errepertorio eta dantzaren didaktika berak aurki daitezke XVIII. eta XIX. mendeetako akademia militarretan, baita Juan Inazio Iztueta zaldibiarrak 1824an argitaratutako Gipuzkoako dantzei buruzko liburuan ere.

Mugimendu erromantikoak lehenengo eta nazionalismoak ondoren, nekazaritza-gizartearen krisiaren ondorioz bertan behera geratzen ari ziren musika- eta dantza-moldeak sustatu zituzten. XIX. mende bukaeran eta XX.aren hasieran Euskal Festek desagertze bidean zegoen kultura tradizionalaren ale batzuk aukeratu, eta ezohiko ospakizun-programa batean aurkeztu zituzten. Aldi berean, Eusko Alderdi Jeltzaleak, bere programa politikoaren osagarri, programa ludiko-sinboliko bat egokitu zuen eta zabaltzeari ekin zion. Durangaldeko dantzari-dantza hautatu zuen Sabino Aranak euskal nortasuna egokien islatzen zuen irudi gartsutzat, eta Batzokisarearen bidez Euskal Herri osoko gazteak jarri zituzten ezpata-dantza dantzatzen.

Alde batetik, Resurrección María Azkue eta José Gonzalo Zulaika *Aita Donostia* gidari zirela, folklorearen alorrean ustez desagertzen ari zen kultura erreskatatzeko edo gutxienez biltzeko ahaleginak egiten ari ziren. Bestetik, abangoardiako korronte artistikoen emankortasunak erakarrita sorkuntza puri-purian zegoen. Europa osoa korritu berri zuten errusiar ballet folklorikoek harridura- eta emozio-arrasto sakonak utzi berriak zituzten. Euskal musika eta dantzak lehengai bikainak izanda, eszenaratze- eta balletizazio-joerak baliatuz beste horrenbeste egiteko batu ziren hainbat euskal ekintzaile. Segundo Olaetak Elai-Alai taldea sortu zuen Gernikan 1927an eta, urtebete beranduago, *Saski Naski* ikuskizuna aurkeztu zuten Donostian, bertan Orfeoiko kantariek, Orkestra sinfonikoak, eta Donostiako, Berrizko, Izpurako eta Atharratzeko dantzariek parte hartu zuten.

Bilketa-, ikerketa-, sustatze- eta sorkuntza-lanetan bizi-biziak izan ziren gerra aurreko urteak. 36ko gerrak errotik eten zuen mugimendu hura, baina hondamendiaren erdian bi ekimen loratu ziren. Olaetaren Elai-Alaik

**4.** Aurreskua Zarautzen XX. mende hasieran.








**4.** *Aurresku* en Zarautz (Gipuzkoa) a principios del siglo XX.

Por otro lado, los creadores, atraídos por las fértiles corrientes artísticas de vanguardia de la época, estaban en plena ebullición. Los ballets folclóricos rusos que recorrieron Europa durante aquellos años dejaron un profundo rastro de asombro y emoción por todo el continente. Varios emprendedores del país, convencidos de que la música y las danzas vascas constituían una materia prima inmejorable, se organizaron para aplicar aquí los mismos modelos de puesta en escena y balletización. En 1927, Segundo Olaeta creó en Gernika (Bizkaia) la compañía Elai-Alai, y al año siguiente, se presentó en Donostia/San Sebastián el espectáculo *Saski Naski,* en el que intervinieron el Orfeón Donostiarra, la orquesta sinfónica y *dantzaris* de la capital guipuzcoana, Berriz (Bizkaia), Izpura (Baja Navarra) y Atharratze (Zuberoa).

Los años previos a la guerra fueron años intensos de recopilación, investigación, promoción y creación. La guerra civil española (1936-1939) supuso una repentina interrupción de aquel movimiento, pero en medio del desastre emergieron dos grandes iniciativas: la compañía Elai-Alai, fundada por Olaeta, alzó el vuelo hacia Europa y se convirtió en embajadora de la cultura vasca. A su paso por Francia, la compañía se encontró con el grupo Eresoinka, que el Gobierno Vasco había formado, como parte de su estrategia cultural y comunicativa, con la intención de que se encargara de la difusión del patrimonio musical y coreográfico del país, para lo cual congregó a un nutrido grupo de cantantes, músicos, creadores y bailarines y bailarinas. Tras un periodo de ensayos en Sara (Lapurdi), la compañía actuó, entre otras muchas ciudades, en París, Bruselas, Ámsterdam, La Haya, Rotterdam y Londres.

Perdida la guerra, los integrantes de Eresoinka y Elai-Alai se encontraron con que no podían volver a casa. Algunos de ellos se establecieron en Lapurdi, pero también hubo quienes, convertidos en artistas itinerantes, siguieron de gira, ahora por América del Sur, para proseguir con su labor de difusión de la

hegoak astindu eta Europara hegan egin zuen, hala umezurtz-talde hura euskal kulturaren enbaxadore bilakatu zen. Frantzian, Eusko Jaurlaritzak berak antolatutako musika- eta koreografia-enbaxadarekin egin zuten topo: Eresoinka. Gerra kulturaren eta komunikazioaren eremuetan egiteko asmoz, Eusko Jaurlaritzak euskal kantari-, musikari-, sortzaile- eta dantzari-talde handia bildu zuen. Saran prestaketa-lanak egin ondoren, besteak beste, Paris, Brusela, Amsterdam, Haga, Rotterdam edo Londresen emanaldiak eskaini zituen.

Gerra galduta, etxera itzuli ezinda aurkitu ziren Eresoinka eta Elai-Alaiko dantzariak. Batzuk Lapurdin finkatu ziren eta beste batzuk, artista nomada bihurtuta, Hego Ameriketan birak eginez segida eman zioten euskal kultura eta dantza lau haizeetara zabaltzeko lanari. Dantza klasikoan trebatu eta euskal dantza tradizionalak eszenaratzeko eredu akademiko errusiarra jorratzen jarraitu zuten. Hazi hartatik ernaldu ziren hurrengo hamarkadetan XX. mendeko euskal dantzaren hainbat ekimen. Schola Cantorum eta Kresala Donostian eta Oldarra eta Etorki Lapurdin, besteak beste. Donostiako Goizaldi dantza-taldeak, tradizioari lotuago, Gipuzkoako dantzen interpretazio distiratsuari esker ospea irabazia zuen.

1960ko hamarkadan euskal kulturaren susperraldia eragin zuen Jorge Oteizak akuilatutako Arte Garaikidearen Euskal Eskolak, eta haren ondotik Ez dok amairu taldeak musikan lurrikara eragin zuen bezala, dantza-jarduna errotik irauli zuen Argia dantzari-taldeak. Juan Antonio Urbeltzen gidaritzapean, taldeak dantza tradizionalen sustraiak ikertzeko, tokian tokiko folklore bilketa-lana abiatzeko eta koreografia-ondare tradizionala balioztatzeko, berreskuratzeko eta birsortzeko olatu handia eragin zuen.



**5.** Aurreskua Orion, 1942.

**5.** *Aurresku* en Orio (Gipuzkoa), 1942.



cultura y las danzas vascas. Para ello, aquellos *dantzaris* trabajaron tan duro como siempre y, tanto para la danza clásica como para las danzas tradicionales, sus puestas en escena siguieron aplicando el modelo académico de los ballets rusos. Aquello abonó el terreno para que en las décadas siguientes se crearan varias de las más importantes iniciativas del siglo XX en el ámbito de la danza, como, por ejemplo, la Schola Cantorum y el grupo Kresala, en Donostia/San Sebastián, o los grupos Oldarra y Etorki, en Lapurdi. Más cercano a la tradición, el grupo Goizaldi de Donostia/San Sebastián consiguió labrarse un nombre en el mundo de la danza gracias a sus brillantes interpretaciones.

En la década de 1960, la Escuela Vasca de Arte, impulsada por Jorge Oteiza, propició una profunda renovación de la cultura vasca. En aquel contexto, de la misma manera que el grupo Ez dok amairu hizo temblar el suelo en el que hundía sus raíces la música vasca, la creación del grupo Argia revolucionó el mundo de las danzas tradicionales. La onda expansiva que se generó en torno al grupo, dirigido por Juan Antonio Urbeltz, permitió investigar las raíces de las danzas tradicionales, recopilar el legado folclórico de cada lugar, y evaluar, recuperar y reconstruir el patrimonio coreográfico del país.

# Neguko festak, inauteriak dantzan



6. Maskaradak Altzürükun, 2020.

Arimen Gaua eta Domu Santu egunarekin hasi, eta hausterre-egunera bitartean neguko festak ospatzen dira Euskal Herrian eta Europako mendebalde osoan. Arimen Gauaren edo Gau Beltzaren ospakizunak ahanzturaren pu-tzuan galtzekotan izan diren arren, orain Halloween ekarri du merkataritza-industriak eta badirudi berriz ere indartzen hasiak direla. Izan ere, festa bera da bien oinarrian dagoena. Gaurko gazteentzat Hollywoodeko filmetako kontuak dira, baina beren aitona-amonek Arimen Gaua ospatzeko kalabazak hustu, kandelak jarri eta bide-bazterretan bizilagunak izutzeko ohitura zuten filmetan halakorik ikusi aurretik.

Gazte-kuadrilla bat elkartzen da eta baserriz baserri edota etxez etxe joaten da herriko atari guztiak bisitatzen. Etxe bakoitzaren aurrean kantuan edo dantzan egin, eta ondoren gabonsaria eskatzen dute: jatekoa edo dirua. Errondak dira, eskeak, neguko festetan ezinbestekoak. Oilasko-biltzeak San Martinetan, gabonsari-eskeak San Nikolasen aitzakian, Olentzero, Agate Deunaren eskea, inauterietako puska-biltzeak… Neguko errondak kantuz eta dantzaz beteta ageri dira, eta ez dira edonolako dantzak. Euskal inauterietan Europa zaharreko erritual aberats bezain harrigarriak dantza-tradizio ikusgarriz gorpuztuta aurki daitezke.





# Fiestas de invierno, danzas de carnaval

**6.** Mascaradas en Altzürüku (Zuberoa), 2020.

Desde la Noche de Ánimas y el día de Todos los Santos hasta el Miércoles de Ceniza, en todo el occidente europeo, incluido el País Vasco, se celebran las fiestas de invierno. A pesar de que la celebración de la Noche de Ánimas (*Gau Beltza* o *Arimen Gaua*) a punto ha estado de caer en el olvido, en los últimos años se ha visto fortalecida a causa de la instauración de la fiesta de Halloween por parte de la industria y el comercio. Y es que ambas celebraciones tienen el mismo origen. Los chicos y chicas de hoy conocen Halloween a través de las películas, pero ya mucho antes de que el cine nos la diera a conocer, nuestros abuelos y abuelas celebraban esa festividad vaciando calabazas, encendiendo velas y asustando a los vecinos.

Varios grupos de jóvenes recorren el pueblo de caserío en caserío o de casa en casa, deteniéndose delante de cada portal para bailar y cantar y pedir un pequeño aguinaldo: o comida o dinero. Se trata de las rondas de cuestación, tan importantes en toda fiesta de invierno que se precie: las colectas de pollo u *oilasko-biltzeak* del día de San Martín, los aguinaldos del día de San Nicolás, el día de Olentzero, las cuestaciones de Santa Águeda, las colectas o *puska-biltzeak* de carnaval… Las rondas de invierno se acompañan siempre de cantos y bailes muy significativos. De hecho, en los carnavales del País Vasco, los viejos ritos europeos, tan valiosos como sorprendentes, se traducen en una asombrosa tradición de danzas.

Las extraordinarias mascaradas de Zuberoa aúnan la función social de los carnavales y su valor simbólico y ritual con unas maravillosas danzas. Los y las jóvenes de cada pueblo se hacen cargo de la preparación de los personajes o *maskaradaris*, que llevarán después de una localidad a otra. No es tarea fácil, ya que casi todos los pueblos de la zona son pequeños y, por lo tanto, la responsabilidad recae sobre casi todos los chicos y chicas del lugar. Para ello, se requiere la presencia del cuerpo de *dantzaris* más experimentados, las voces más dulces, los grandullones mejor predispuestos a hacer las chanzas y mofas más crueles, el elenco de intérpretes mejor preparados, que se encargarán de provocar a la gente al mismo tiempo que narran disciplinadamente lo que está sucediendo, así como los mejores músicos.

En los últimos años, la duración de las mascaradas se suele prolongar desde el segundo o tercer fin de semana de enero hasta el Domingo de Pascua. El cortejo de *maskaradaris* llega al pueblo que le haya correspondido el sábado o el domingo por la mañana. Allí les espera una barricada simbólica, que deben atravesar cantando y bailando si quieren ganarse el derecho a disfrutar de un aperitivo. La misma escena, con sus barricadas, sus danzas, sus cantos y su aperitivo, se repite durante toda la mañana en cada una de las calles del pueblo.

Los *maskaradaris* forman una colorida y ruidosa comparsa: el grupo de los rojos o *gorriak* está integrado por los y las *dantzaris* más refinados, mientras que el de los negros o *beltzak* se compone de personajes salvajes, provocadores y alborotadores. Los afiladores o *txorrotxak* presentan el acto cantando a dos voces y *a capella*, y, tras

Zuberoako maskaradak inauterien funtzio soziala, aztarna sinbolikoa eta dantza miragarriak biltzen dituen erritual ikusgarriak dira. Herri bateko gazteek beren gain hartzen dute maskaradak prestatu eta herriz herri eramateko ardura. Ez da erabaki erraza, herri txikiak baitira gehienak, eta horrelako erronka bati aurre egiteko herriko ia gazte guztiek egin beharko baitute lanen bat. Ongi trebatutako dantzariak behar dira, ahots gozoko kantariak, trufarako eta ankerkerietarako prest dauden kankailuak, probokatzaileak eta esatari txukunak izango diren antzerkilariak, baita musikariak ere.

Urtarrileko bigarren edo hirugarren asteburuan hasita, Pazko-igandera arte luzatzen dira azken urteotan maskaraden egutegiak. Larunbat edo igande goizean iristen da maskaradarien taldea dagokien herrira. Barrikada sinboliko bat dute harrera egiteko. Dantzan eta kantuan iragan, eta lehen jan-edanaz gozatzeko eskubidea irabaziko dute. Barrikadak, dantzak, kantuak eta jan-edanak goiz osoan errepikatzen dira auzorik auzo.

Konpartsa koloretsua eta zaratatsua osatzen dute maskaradariek. Dantzari finak dira gorriak; basatiak, zirikatzaileak eta zalaparta-tsuak, beltzak. Eztarri finez, bi ahotsez kantatzen dute txorrotxek aurkezle-lanak eginez, eta kritika soziala eta irria eragiteko etorri bihurria darabilte kauterek eta buhameek. Zuberoako dantza-teknika berezian trebatutako bost aitzindariek

**7.** Kabalkada Irisarrin, 2012.
**8.** Talai-dantzariak Amezketako inauterietan, 2018.





**7.** *Kabalkada* en Irisarri (Baja Navarra), 2012.
**8.** *Talai-dantzaris* en el carnaval de Amezketa (Gipuzkoa), 2018.

ellos, salen a escena los caldereros o *kauterak* y los gitanos o *buhameak*, especialmente dotados para la risa y la crítica social. Después, los cinco *dantzaris* principales o *aitzindariak* —*zamaltzaina* (el hombre caballo o centauro), *txerreroa* (el herrero), *kantiniersa* (la cantinera), *gathuzaina* (el gato) y *entseinaria* (el abanderado)— hacen gala de sus dotes artísticas e interpretan un baile según las cinco técnicas de danza suletinas. Los *dantzaris*, que siempre miden muy bien sus pasos y parece que solo acaricien el suelo, desafían a la gravedad en cada uno de sus bailes o movimientos —barricadas, gavotas, branles y baile del vaso—. Con un simple salto y la ejecución de un par de pasos —el *frijat* y el *antrixat*—, se elevan del suelo, pero lo hacen sin mirar al cielo. Como los bailarines y las bailarinas de la mayoría de las danzas tradicionales, los *dantzaris* suletinos pisan fuerte la tierra sobre la que bailan: al saltar, ascienden lo más posible, pero el descenso es igual de vigoroso. La flauta o *txirula,* el salterio o *ttun-ttun*, el timbal o *atabala* y el rabel o *arrabita* marcan los puntos del suelo que deben pisar.

Los primeros carnavales del año se celebran en Lapurdi a finales de enero o a primeros de febrero. A diferencia de lo que ocurre en Zuberoa, en Lapurdi no hay un solo grupo que recorra todo el territorio, sino que cada localidad organiza su propia comparsa, que visita los caseríos y barrios del pueblo durante los carnavales. En algunas localidades, las rondas se prolongan durante dos, tres y hasta cuatro fines de semana.

Los *kaskarots* son los principales personajes de los carnavales de Lapurdi. Ataviados con floridos sombreros y cintas y adornos de gran colorido, y con un palo entre las manos, los *kaskarots*, organizados en grupos de ocho, ejecutan un sinfín de bailes, sobre todo danzas de la manzana o *sagar-dantzas* y danzas de palos o *makila-dantzas*, pero



—*zamaltzainak*, *txerreroak*, *kantiniersak*, *gathuzainak* eta *entseinariak*— dantzarako dohain harrigarriak erakusten dituzte. Dantza-jauziak urrats neurtuz eta lurra laztanduz dantzatzen dituzte, baina barrikadan, gabotan, branletik jauztean edo godaletean grabitateari desafio egiten diote dantzari zuberotarrek. Gora jauzi eta *frijat* eta *antrixat*-ekin lurretik askatzen dira, baina ez dira zerura begira ari dantzan. Dantza tradizional gehienetan bezala, lurrarekin dantzatzen dira zuberotarrak ere. Jauzi egiterakoan ahalik eta goren egiten dute, baina goitik beherakoa ere indarrez burutzen dute. Txirularen, ttun-ttunaren, atabalaren eta arrabitaren doinuek markatzen dituzte dantzarien oinek lurra hartzen duten puntuak.

Lapurdin urtarrila amaieran edo otsaila hasieran martxan izaten dira inauteri goiztiarrenak. Hala ere, Zuberoan ez bezala, Lapurdin ez du talde bakar batek herrialde osoa bisitatzen. Udalerri bakoitzean talde bat antolatzen da eta herriko baserriak, etxeak eta auzoak bisitatuko ditu inauteri- aroan. Zenbait herritan bi, hiru edo lau asteburuz luza daiteke erronda.

Kaskarotak dira Lapurdiko inauteri-etako mozorro nagusiak. Lorez apaindutako kapela, xingola eta apaingarri koloretsuak soinean, eskuan bi makila dituztela aritzen dira kaskarotak. Zortziko taldetan antolatuta, makila-dantzak egiten dituzte, baita dantza-jauziak, marmutxak, xinpleak, kontra-dantzak, soka-dantzak, fandangoak eta arin-arinak ere. Neska-mutil dantzariekin batera, hauek ere osatzen dute Lapurdiko inauterietako konpartsa: besta gorri, ponpier, kotilun gorri, jaun-andere, hartz eta tarteka, herrien arabera, ager daitezkeen bestelako mozorroek.

Lapurdiko kaskaroten oso hurbileko inauteria Abaltzisketan, Gipuzkoan, aurki daiteke. Zortzi dantzari zapi koloretsuz apainduak, makila-dantza egiten dutenak baserriz baserri puska-biltzean. Txantxoak

**9.** Txantxoak Abaltzisketan, 2005.
**10**. Kaskarotak Beskoitzeko inauterietan, 2019.





también *dantza-jauzis*, *marmutxes, xinples, kontra-dantzas, soka-dantzas* y *arin-arines* y fandangos. Los y las *dantzaris* suelen estar acompañados de su comparsa: abanderados, *bestagorris, ponpiers, kotilungorris, jaun-anderes,* el oso o *hartza* y, dependiendo del pueblo de que se trate, algún que otro personaje más.

Un carnaval bastante parecido a los *kaskarots* labortanos se celebra en Abaltzisketa (Gipuzkoa), en el que un grupo de ocho *dantzaris,* engalanados con pañuelos de vivísimos colores, hacen la colecta de caserío en caserío mientras bailan la danza de palos o *makila-dantza*. Se trata de los *txantxoak,* a quienes de ordinario acompañan un acordeonista y una pequeña comparsa de dos personajes, uno de los cuales barre el portal del caserío en el que estén, mientras el otro, el cestero o *zesteroa,* se encarga de recoger la comida que el casero o la casera haya tenido a bien darles. El grupo de *talai-dantzaris* de otro pueblo guipuzcoano, Amezketa, baila una *makila-dantza* parecida pero de ritmo más intenso a la que bailan los *txantxoak* de Abaltzisketa. Cerca de la frontera con Gipuzkoa, en Markina-Xemein (Bizkaia), un grupo de *makila-dantzaris* baila, durante las fiestas del domingo de carnaval, la danza del odre o *zahagi-dantza,* que complementan con la interpretación de la danza del oso o *hartzaren dantza.*

En todo el país, no hay fiesta de invierno o de carnaval (*ihoteak, inauteak, inauteriak, karnabalak o aratusteak*) que no tenga sus propias danzas. En el norte de Navarra, los carnavales se viven con gran intensidad; en muchos pueblos, varios grupos de chicos y chicas salen de ronda dispuestos a bailar: los *goitarrak* de Lesaka, por ejemplo, bailan *ari-arines* y fandangos delante de cada caserío, y, con sus trajes de color rojo y blanco, llenan de colorido y alegría los caseríos desperdigados por los barrios de Endara, Auzoberri y Zala.

Los de Lantz, en Navarra, se han convertido en un símbolo de los carnavales vascos tanto por la riqueza de su fiesta de disfraces como por sus extraordinarias comparsas. Los herradores o *arotzak* asustan a

**9.** *Txantxoak* en el carnaval de Abaltzisketa (Gipuzkoa), 2005.
**10**. *Kaskarotak* en el carnaval de Beskoitze (Lapurdi), 2019.



dira, eta soinujoleak lagunduta aritzen dira makila-dantzan. Konpartsa soilagoa ageri zaigu hemen; txantxoekin batera bi mozorro aritzen dira. Dantzatu aurretik baserriko ataria erratzez garbitzen du batek, eta baserritarrak emandako jakiak biltzen ditu bigarrenak, zesteroak. Txantxoek dantzatzen duten makila-dantza bertsua, baina biziagoa, egiten dute Amezketan talai-dantzariek. Gipuzkoatik Bizkaira sartu orduko, mugan bertan, Markina-Xemeinen, beste makila-dantzari talde bat aurki daiteke. Zahagi-dantzan aritzen dira, eta hartzaren dantzarekin osatzen dute saioa.

Ihoteak, inauteak, inauteriak, karnabalak edo aratusteak non, dantzak han izaten dira neguan. Nafarroako iparraldean inauteriak bizi-bizi dira gaur egun. Eskean ateratzen diren gazte-taldeak ugariak dira eta dantzarako prest daude gehienetan. Lesakako Goitarrek fandangoa eta arin-arina dantzatzen dute baserri bakoitzaren aurrean. Talde zuri-gorriak kolorea eta alaitasuna zabaltzen ditu Endara, Auzoberri eta Zala auzoetako baserri sakabanatuetan.

Euskal inauteriaren beraren sinboloetako bat bihurtu da Lantzekoa, izan ere, hango mozorro-festaren eta konpartsaren aberastasuna ezohikoa da. Arotzek edonor izutu eta ferratuko dute oharkabean. Geldiezinak dira txantxoen oihuak eta joan-etorriak, zaldikoaren jauzi eta ostikoak eta Ziripot mozorro itzelaren ibilkera trakets eta oreka-arazoak. Miel Otxin erraldoiaren epaiketarekin eta erretzearekin amaitzen da errituala, haren inguruan guztiek zortzikoa dantzatzen dute txistulariaren doinura. Astearte-inautean dantza egiten da urtero Lantzen eta beste zenbait herritan.

**11.** Inauteriak Lantzen, 2014.
**12.** Sagar-dantzaria Arizkuneko inauterian, 2020.

**11.** Carnaval en Lantz (Navarra), 2014.
**12.** *Sagar-dantzaria* en el carnaval de Arizkun (Navarra), 2020.


12


11

los presentes en busca de alguien que pueda ser herrado. Entre tanto, los *txantxoak* gritan y corren sin cesar, mientras que el *zaldiko* da coces a diestro y siniestro, y Ziripot va dando tumbos torpemente de una parte a otra. La fiesta concluye con el juicio al gigante Miel Otxin, que acaba siendo quemado en la hoguera mientras la gente baila un *zortziko* a ritmo de *txistu* y tamboril. El martes de carnaval también es costumbre bailar en Lantz y en otros muchos pueblos de Navarra.


13

# Negua joan, uda etorri, eta dantzan berriz

Maiatzarekin batera festak hasten dira herriz herri eta jai-egutegiak ez du atsedenik urrira arte. Santuen egutegiak datak zehazten ditu tokian tokiko festak ospatzeko. Gainera, Pazko-igandearen arabera, inauterietatik hasi eta Corpus egunera bitartean antolatzen diren jai mugikorrekin tartekatzen dira. Ezpata-dantzen, trokeo-dantzen eta soka-dantzen garaia da.

**13.** Zubigaineko dantza Lesakan, 2019.

## BESTABERRI

Festaren egitura erritual, osagaien aniztasun eta dantzen eta janzkeren aberastasunari erreparatuta, luzaroan Corpus eguneko jaia izan da distiratsuena. Oñatiko festak, esate baterako, gorazarre egiten dio eliza-segizioen protokoloari eta apaindura barrokoen loriari. Apostoluen, Mikel Deunaren eta Kristoren irudi bizien artean, kaskaineta- eta txistu-hotsek iragartzen dituzte Oñatz taldeko dantzariak. Dantzakera neurtu eta dotorez aletzen dituzte Corpus egunari lotuta iraun duten Corpus dantzak: San Sebastian, banakoa, launakoa, zortzikoa eta arku-dantza eta, eguna bukatzeko, aurreskua edo soka-dantza.





# Tras el invierno, la temporada de danzas sigue en verano

**13.** Danza sobre el puente en Lesaka (Navarra), 2019.

En la mayoría de los pueblos, la llegada de mayo supone el comienzo de la temporada de fiestas, que acaba en octubre. El santoral señala la festividad de cada localidad, pero cada una de ellas se alterna con las que se prolongan desde carnavales hasta el día del Corpus, que varían dependiendo del día en que caiga el Domingo de Pascua. Es tiempo de baile en todo el país.

## FIESTA DEL CORPUS CHRISTI O *BESTABERRI*

Por su estructura ritual, la variedad de las partes que la componen y la riqueza de sus danzas y vestidos, durante mucho tiempo se consideró que la fiesta del Corpus Christi era la más brillante y deslumbrante de todas. En Oñati (Gipuzkoa), por ejemplo, para rendir homenaje a la cruz, la gente sale a la calle en solemne procesión y se celebran grandes fastos. Al son del *txistu* y las castañuelas, los y las *dantzaris* del grupo Oñatz acompañan a las magníficas imágenes de los apóstoles, de San Miguel y de Jesucristo. Después, bailan con paso bien medido y elegante las danzas más características de esa fiesta: el *zortziko* de San Sebastián, el *banako*, el *launako*, el baile de arcos o *arku-dantza*, y, para terminar el día, el *aurresku* o *soka-dantza* (danza de cuerdas).

En varios pueblos del interior de Lapurdi y de la Baja Navarra, la fiesta del Corpus Christi, también conocida como *Bestaberri* (fiesta nueva), se celebra en medio de llamativas ceremonias y elegantes marchas militares. Tal es el caso de las espectaculares fiestas de Heleta (Baja Navarra), en las que una variopinta comparsa de personajes —*zanpurrak* (los zapadores), *oilarrak* (los gallos), *sarjentak* (los sargentos), *kaporalak* (los cabos), *alabardariak* (los alabarderos) y *banderariak* (los abanderados)— marca el paso de entrada a la iglesia, donde se celebra una hermosa ceremonia, acercándose al altar poco a poco, dando seis pasos adelante y cuatro atrás.

## *EZPATA-DANTZAK*

Cada 3 de mayo, durante los actos festivos que se organizan en Legazpi (Gipuzkoa) con motivo de la celebración de su gran día, la fiesta de la Santa Cruz o *Santikutz*, el momento de la interpretación de la *ezpata-dantza* es, sin duda, el que más poderosamente atrae la atención de los presentes. Durante las semanas siguientes a la finalización de esas fiestas, las actuaciones de *ezpata-dantza* se suceden, entre otros sitios, en Donostia/San Sebastián, Zumarraga, Tolosa y Deba, en Gipuzkoa; Markina-Xemein, en Bizkaia; y Lesaka y Bera, en Navarra. En los últimos años, otros muchos pueblos han seguido el ejemplo de los anteriores, y, en la actualidad, también se baila la *ezpata-dantza* en Elgoibar, Eibar, Beasain, Andoain y Añorga (Gipuzkoa), en Sestao y Portugalete (Bizkaia), en Pamplona, y en Biarritz (Lapurdi).

Bestaberri edo Corpus eguneko ospakizunei estimu handiz eutsi diete Lapurdiko barnealdeko eta Nafarroa Behereko zenbait herritan. Agerraldi militarren eta martxa zeremonialen dotoreziaz jantzita, ikustekoa da Heletan egiten duten Bestaberriko konpartsa koloretsua. Zapurrek, oilarrek, sarjentek, kaporalek, alabardariek eta banderariek martxa markatzen dute elizara sartzeko eta ekitaldi zeremoniatsu ederra eskaintzen dute, sei urrats aurrera eta lau atzera eginez geldo-geldo aurreratzen doana.

## EZPATA-DANTZAK

Maiatzaren 3an, Santikutz egunean, herriko jai-egun handian, ezpata-dantzak erakartzen du legazpiarren atentzioa. Ezpatak dantzan jartzeko aroa hasten da Legazpin, eta hurrengo asteetan hainbat herritan izango dira ezpata-dantzak: Donostian, Zumarragan, Tolosan, Markina-Xemeinen, Deban, Lesakan eta Beran, besteak beste. Azken urteotan beste zenbait herritan hasi dira beren ezpata-dantzak egiten aipatutakoen egiturak imitatuz. Hala, Elgoibarren, Eibarren, Beasainen, Iruñean, Añorgan, Biarritzen, Portugaleten, Sestaon eta Andoainen ere egiten dira ezpata-dantzak gaur egun.

Ezpatak darabiltzate dantzariek, baina ez elkarrekin borroka egiteko. Europako beste zenbait eskualdetan ezaguna den *katean egiten den* ezpata-dantza estiloan aritzen dira. Dantzari bakoitzak ezpata bat heldulekutik hartzen du eta beste ezpata bat puntatik. Horrela, dantzariek ezpaten muturrak elkarri emanez katea osatzen dute. Ezpata-dantzariak izenarekin ezagutzen dira gehienak, baina zenbaitek ez darabilte benetako ezpatarik ere. Deban eta Lesakan koloretako xingolaz apaindutako makilak darabiltzate, Tolosan alabardak eta Beran sokak.

Ezpatak metro betetik gorako luzerakoak izan ohi dira. Euskaraz *bi eskuko ezpatak* direla esaten da, haien pisuagatik eta tamainagatik bi eskuak erabili behar izaten baitira. Taldea ezpata horien bidez elkarlotuta, bi edo lau lerrotan antolatu eta gidari batek lotzen ditu aurrean lerro-muturrak. Gidariaren aginduetara mugitzen da taldea, eta zenbait koreografia-figura egiten dira ezpatak askatu gabe. Zubiak egiterakoan buruzagiak bira-erdi egin eta atzeranzko norabidea hartzen du berarekin aurrealdeko dantzariak eraman, ezpatak altxatu eta gainontzeko dantzarien buru gainetik pasatzen dira. Atzetik datozenek gauza bera egiten dute, talde osoa zubitik pasa eta atzera begira geratzen den arte. Zubi horiek lerroak txandakatuz edo denak batera egin daitezke eta, zenbait tokitan, Deban adibidez, azpitik ere egiten dira dantzari guztiak ezpaten gainetik salto egitera behartuz.

Zubiak dira euskal ezpata-dantzetan ageri zaizkigun koreografia-egitura arruntenak. Ganbaradun arkuak ere egiten dira, ohorezko pasabidea eskainiz agintariei eta omenduei. Arrosak ere egiten dira bi ezpata-dantzatan, Markina-Xemeinen eta Legazpin. Dantzariek ezpatak elkar gurutzatuz izar-erako egitura borobila osatzen dute eta maisu zaharra altxatzen dute bertan.

Aipatutako koreografia-egiturak arruntak dira Espainia, Frantzia, Ingalaterra, Austria, Italia edo Alemaniako ezpata-dantzetan, baina bada ezaugarri bat euskal ezpata-dantzak bereizten dituena. Bakarlariak elkarri lotuta dagoen taldetik aske daude eta bina ezpata txikirekin







**14.** Bordon-dantza Beran, 2014.

**14.** *Borbon-dantza* en Bera (Navarra), 2014.

En la *ezpata-dantza,* los y las *dantzaris* blanden las espadas no para atacar a sus compañeros y compañeras, sino para bailar en cadena, al igual que en otras regiones de Europa. Cada *dantzari* sostiene una de las espadas por la empuñadura y la otra por la punta, de manera que entre todos forman una cadena. A pesar del nombre que recibe la danza, lo cierto es que no en todas partes usan espadas: así, por ejemplo, en Deba y en Lesaka, los y las *dantzaris* utilizan palos adornados con cintas, en Tolosa, alabardas, y en Bera, cuerdas.

Las espadas que se utilizan en este tipo de danzas tienen una longitud superior a un metro y reciben en euskera el nombre de *bi eskuko ezpatak,* es decir, «espadas a dos manos», porque debido a su peso y tamaño se han de blandir con las dos manos. Unidos entre sí por las espadas, y dispuestos en dos o cuatro filas, los y las *dantzaris* suelen estar dirigidos por un capitán, que se sitúa al frente del todo y a cuyo mando el grupo ejecuta varias figuras coreográficas. Para la realización de los puentes, el capitán da media vuelta y retrocede llevándose tras sí a los y las *dantzaris* de la parte delantera, que, alzando las espadas por encima de la cabeza, atraviesan toda la columna hasta situarse en la parte de atrás; a continuación, les sigue el resto de *dantzaris,* que ejecutan exactamente el mismo paso o bien turnándose o todos a la vez. Sin embargo, en algunos sitios —por ejemplo, en Deba—, las espadas se colocan a ras del suelo, lo que obliga a los y las *dantzaris* a saltar sobre ellas.

Los puentes son la estructura coreográfica más importante de las *ezpata-dantzas* vascas, pero también son comunes los arcos con cúpula, sobre todo en la formación de pasillos para rendir honores a personas destacadas o autoridades. Además, en las *ezpata-dantzas* de Markina-Xemein y Legazpi, los y las *dantzaris* cruzan las espadas para formar una estructura circular en forma de estrella, también llamada rosa, en la que se coloca y es alzado el capitán.

Todas estas figuras existen igualmente en las danzas de espadas de España, Francia, Inglaterra, Austria, Italia y Alemania, pero hay un rasgo que distingue a la *ezpata-dantza* vasca de las demás: aquí, unos solistas que empuñan dos espadas pequeñas cada uno, realizan por su cuenta, separados del resto del grupo, una serie de pasos, cabriolas, elevaciones de piernas y giros, que redondean haciendo girar las espadas y moviéndolas de un lado para otro.

erakustaldia egiten dute taldearen aurrean. Ezpata-dantzari horien dantzetan jauziak, muriskak, oin-altxatzeak eta bestelako urrats bortitzak agertzen dira. Ezpatak batera eta bestera biraraziz egindako mugimendu bihurriekin borobiltzen dituzte emanaldiak.

## TROKEO-DANTZAK

Orain arte aipatutakoak katean egindako ezpata-dantzak dira. Horiez gain, badira beste egitura bati erantzuten dioten ezpata-dantzak, trokeo-dantzen artean sailkatuko ditugunak. Zortzi dantzari, bi lerrotan antolatuta eta makila, ezpata, brokel, uztai edo dantzarako tresnaren bat eskuan dutela egiten diren dantzek osatzen dute trokeo-dantzen multzoa. Talde-osaketa horretatik abiatuta, dantzariek postuak elkarren artean trukatuko dituzte dantzan zehar. Toki-aldaketa edo truke horrek ematen dio izena sortari, trokeo-dantzari. Truke horietan urrats bereziak dantzatu edo eskuetan dituzten tresnak elkar kolpatuz aritzen dira.

Durangaldeko dantzari-dantza edo ezpata-dantza da trokeo-dantza sorta ezagunenetakoa. Ezpatak eta makilak txandakatzen dituzte. Dantza hauek ezagun egin dira egiten dituzten artazi edo ostiko indartsuengatik, baita gurpil edo grabileta biziengatik ere. Agintarienarekin hasi eta zortzinangoa, banangoa, binangoa, launangoa, ezpata-joko txikia, ezpata-joko nagusia, makil-dantza eta txotxongiloarekin osatzen da Durangaldeko dantzari-dantzaren dantzen sorta. Dantza hauek Berrizeko San Pedro jaietan, Iurretako San Migeletan, Garaiko Santiago jaietan eta Abadiñoko San Trokazetan ikusi ahal dira herriko dantzarien emanaldietan.

Gipuzkoan, brokel-dantzaren zikloan zortzikoak urrats neurtuekin eta garbiekin dantzatzen dira, eta ondoren makila handi, makila txiki, uztai handi, uztai txiki, brokel-makila eta zinta-makila erabiltzen dira tresnen jokoak egiteko. Goierriko dantza-maisuek herrialde osora zabaldu zuten brokel-dantza, baina badira zenbait herri non sorta bereziak egiten dituzten; Antzuolan Mairuaren alardean edo Berastegin San Juan lantzetan, adibidez.

Arabako Errioxan Eltziego edo Guardian trokeo-dantzak egiten dira, eta Villabuenan eta Oionen XX. mendera arte egin ziren.

## SOKA-DANTZAK ETA AURRESKUAK

Ezpata-dantzen eta trokeo-dantzen emanaldien bukaeran ohikoa izaten da aurreskua edo soka-dantza egitea, baina beste dantzaren beharrik gabe, menuko plater bakar eta nagusi moduan ematen da maiz. Garai batean erromeria eta dantzaldi irekietan ohikoak ziren soka-dantzak, gehienetan erritualizatuta ageri zaizkigu gaur egun. Aurreskua, dantza-soka, gizon-dantza, karrika-dantza, esku-dantza, erregelak eta tokian tokiko beste hainbat izenekin izendatzen da soka-dantza. Mediterraneo itsasoaren inguruko lurraldeetan ingurutxoak dira soka-dantzen baliokideak, bikoteka dantzatzen diren zirkulu irekiko dantzak dira.

Soka-dantzan dantzariek elkarri eskuak emanda kate edo soka bat osatzen dute eta hala plazaratzen dira, ordulariaren kontrako norabidean biratuz. Sokaren buru egiten duen dantzariak, aurreskua —aurreko eskua— izenekoak, garrantzi berezia izaten du soka-dantzan. Sokaren





## *TROKEO-DANTZAK*

Hasta aquí hemos venido hablando de las *ezpata-dantzas* que se bailan en cadena, pero también hay otras que tienen una estructura distinta y que se podrían clasificar dentro de las danzas de troqueo. En este tipo de bailes, ocho *dantzaris* organizados en dos filas bailan sosteniendo entre las manos un palo, un broquel, un arco o cualquier otra herramienta de baile. Partiendo de esta disposición, los y las *dantzaris* van trocándose y cambiándose de lugar; de ahí, precisamente, le viene el nombre a este tipo de bailes: *trokeo-dantzak* o danzas de troqueo. En cada uno de los troqueos, cada *dantzari* ejecuta sus pasos mientras hace chocar sus herramientas contra las del compañero o compañera.

La *dantzari-dantza*, una *ezpata-dantza* originaria del Duranguesado, es la más conocida de cuantas componen los ciclos de danzas de troqueo. Se caracterizan por alternar el uso de espadas y palos y son conocidas por dos de sus movimientos, la tijera o *artaziak* y el molinete o *grabiletak*, que siempre se ejecutan de manera muy intensa. El ciclo de *dantzari-dantzas* del Duranguesado lo completan la danza de las autoridades (*agintariarena*), las danzas de a uno (*banangoa*), de a dos (*binangoa*) y de a cuatro (*launangoa*), el pequeño juego de espadas (*ezpata-joko txikia*), el juego de espadas mayor (*ezpata-joko nagusia*) y el *txotxongilo* o danza de títeres. Este ciclo de danzas se baila exclusivamente en Bizkaia; por ejemplo, en las fiestas de San Pedro de Berriz, en las de San Miguel de Iurreta y en las de San Torcuato de Abadiño.

En Gipuzkoa, el conocido como ciclo de danzas de broquel (*brokel-dantzak*) empieza con un *zortziko*, que se baila con paso medido y depurado, y, a continuación, los y las *dantzaris* emprenden un juego de danzas con herramientas como palos, arcos, broqueles y cintas. Los maestros de la comarca del Goierri extendieron este tipo de bailes a toda la provincia, pero algunos pueblos conservan todavía sus propias danzas, como las que se bailan en el Alarde del Moro de Antzuola o las danzas de San Juan de Berastegi.

En Araba las danzas de troqueo se bailan todavía hoy en Eltziego y Guardia, y en Villabuena y Oion lo hicieron hasta el siglo XX.

## *SOKA-DANTZAK* Y *AURRESKUS*

Una vez acabados los espectáculos de danzas de espadas y de troqueo, lo normal es concluir con un *aurresku* o una *soka-dantza* (danza de cuerda), aunque también pueden presentarse ambas danzas como plato único y principal de la actuación, sin necesitad alguna de combinarlas con otras. Hubo un tiempo en el que era costumbre bailar la *soka-dantza* o danza de cuerda en romerías y bailes, pero, en la actualidad, lo normal es bailarla en ceremonias y rituales. A este tipo de danzas se les llama, según el lugar, *aurresku, soka-dantza, gizon-dantza* (danza de hombres), *karrika-dantza* (danza de la calle), *esku-dantza* (danza de manos) o *erregelak* (las reglas). Su equivalente más cercano entre las danzas de la vertiente mediterránea son los *ingurutxoak* o danzas circulares, que se bailan en pareja formando círculos abiertos.

En la *soka-dantza,* los y las *dantzaris* salen al escenario cogiéndose de la mano y formando una cadena en sentido contrario a las agujas del reloj. El o la *dantzari* que va al frente de la cadena, llamado *aurresku* —la mano de delante—, y el que va atrás del todo, llamado *atzesku* —la mano de atrás—, tienen la máxima importancia, puesto que son ellos quienes dirigen al grupo y bailan la mayoría de danzas individuales. En el último tercio del siglo XX, muchos



beste muturrean, azken tokian, atzeskua egoten da. Bien artean gidatzen dituzte taldearen joan-etorriak, eta aurreskuak eta atzeskuak dantzatzen dituzte dantzaren bakarkako erakustaldi gehienak. Hain zuzen ere, aurreskuak soka-dantzan egiten dituen dantza horiek berak dira testuinguru horretatik atera, eta XX. mendeko azken herenean edozein ekitaldi, omenaldi, protokolo, ongietorri edo inauguraziotan ohorezko dantza bezala zabaldu direnak.

Aurreskua ohorezko agerpen indibidual bezala hedatu bada ere, soka-dantzak bere izaera kolektiboari eutsi dio. Bakarlariek gidatzen eta dantzatzen dute nagusiki, baina taldea da dantza esanahiz betetzen duena. Elkarri eskutik emanda plazaratzen da dantzari-multzoa, eta batasun-irudia, elkartzeko eta eskutik helduta dantza egiteko gaitasuna transmititzen du. Luzaroan erromeriatan agintariak ohoratzeko eta herritarren olgetarako dantzatzen ziren soka-dantzak, baina XXI. mendera iritsitako soka-dantza gehienak testuinguru erritualetan eta protokolozkoetan dantzatzen dira.

XX. mendean aurreskuak gizonezkoen dantza esklusibo moduan aurkeztu eta dantzatu badira ere, azken urteotako ikerketek agerian utzi dute emakumeek aurreskua dantzatzea praktika arrunta eta hedatua izan zela 1920ko hamarkadara arte. Aitzitik, genero-ikuspegi modernoek gizartea eta dantza sailkapen-bitarrera makurtu dituzte, eta aurreskua gizonezkoen dantza moduan aurkeztu da luzaroan. Iraganean emakumeek gizonezkoek bezala dantzatzen bazituzten ere, azken ehun urteetan emakumeei ukatu egin zaie soka-dantzak dantzatzeko legitimitatea. Alabaina, genero-berdintasunaren aldeko azken hamarkadetako borrokari esker, historikoki emakumeek aurreskua dantzatu izan dutela frogatzen duten testingantzei esker eta hainbat koreografia-erritual egiteko emakumeek ezarrita zuten debekua altxatu denetik, aurreskuak, ezpata-dantzak eta trokeo-dantzak emakumeek eta gizonek, txandaka zein nahasian, dantzatzeko ohitura zabaltzen hasi da.

**15.** Ezpata-dantza Gernikan, 2016.
**16.** Dantzari-dantza. Berriz, 2019.





**15.** Danza de espadas en Gernika (Bizkaia), 2016.
**16.** *Dantzari-dantza* en Berriz (Bizkaia), 2019.

de los *aurreskus* que tradicionalmente formaron parte de la *soka-dantza* se convirtieron en un conjunto de danzas de honor que en la actualidad se bailan en todo tipo de actos de homenaje, protocolos, bienvenidas o inauguraciones.

Así pues, mientras que el *aurresku* se ha extendido principalmente como danza de honor individual, la *soka-dantza* ha conseguido resistir como danza colectiva. Y es que, aunque sea bajo la dirección de los o las solistas, es el grupo el que da sentido a la danza. La imagen de unidad del grupo, cuyos miembros salen a escena cogiéndose de la mano, transmite la sensación de una poderosa capacidad colectiva. Durante mucho tiempo, las *soka-dantzas* se bailaron tanto para rendir honor a las autoridades como para que la gente se divirtiera, pero, hoy en día, en pleno siglo XXI, la mayoría de ellas se bailan en ceremonias y actos protocolarios.

A pesar de que durante la mayor parte del siglo XX los *aurreskus* fueron exclusivamente interpretados por hombres, las investigaciones de los últimos años han mostrado que hasta bien entrada la década de 1920 fue práctica habitual que las mujeres también lo bailaran. Es decir, por largo tiempo se presentó el *aurresku* como propio de los hombres, debido sin duda a los prejuicios de género de la época y a las clasificaciones binarias a las que, a resultas de ello, se veía condenada la sociedad y, dentro de ella, también el mundo de la danza, y se negó a las mujeres la legitimidad para bailarlo, ocultando el hecho de que en el pasado también ellas formaban parte de los grupos de *soka-dantza.* Sin embargo, las luchas por la igualdad de género de las últimas décadas y los numerosos testimonios que demuestran que las mujeres también fueron históricamente intérpretes de *aurreskus,* así como el levantamiento de la prohibición de su participación en varias estructuras coreográficas, ha hecho que en la actualidad se haya generalizado la costumbre de que hombres y mujeres bailen o bien juntos o bien de manera alternativa *aurreskus,* danzas de espadas, de troqueo y otros muchos bailes.




17

# Dantza tradizionalen loraldia

Tokian tokiko tradizioei eutsi eta dantza lokalak biziberritzen dituzten herri-elkarteez gain, euskal dantzaren panoraman zeresan handia izan dute jarduera-esparru handiagoak landu dituzten dantza-taldeek. 36ko gerra aurreko zenbait ikuskizunek eta taldek —*Saski Naski*k, Eresoinkak eta Elai-Alaik batez ere— frankismoaren lehen hamarkadetako taldeen lan-lerroa markatu zuten suiteak, folklore-estanpen eszenaratzea eta dantzakera estilizatua haizatuz.

**17.** *Martin Zalakain*, Argia dantzari-taldea. 2018.
**18.** Ezpata-dantza, Duguna dantza-taldea. Iruñea, 2017.

## ARGIAREN ITZALA

1965ean, Argia dantzari-taldearen agerpenak ordura arteko dinamika irauli egin zuen. Taldeak tokian tokiko tradizioak ikertu eta, fideltasuna eta distira uztartuz, herrietako dantzak antzokietan taularatzeari ekin zion. Aldi berean, tradizioaren egitura koreografikoak eta sistema sinbolikoak aintzat hartuta sorkuntza-lanak bultzatu zituen eta errepertorio tradizionalaren bilketa osatu zuen. Juan Antonio Urbeltzen zuzendaritza teorikoak eta koreografikoak, Marian Arregiren musika-gidaritzak eta jantzien diseinuek, dantzan eta musikan buru-belarri aritzeko prest zegoen lan-taldeak gorpuztu zuen Argiak dantzan eragin zuen iraultza.

Herrialde eta gai zehatzen inguruan antolatutako ikuskizun monografikoen bidez, maiz itzalean, askotan desagertzear eta





# El florecimiento de las danzas tradicionales

**17.** *Martin Zalakain*, grupo de danza Argia. 2018.
**18.** Danza de espadas, grupo de danzas Duguna. Pamplona (Navarra), 2017.

Además de los grupos gracias a cuya labor se ha conseguido conservar y recuperar muchas de nuestras tradiciones y danzas locales, otros factores más generales también han ejercido una gran influencia en el panorama de las danzas vascas, entre los que cabría citar a los espectáculos y grupos anteriores a la Guerra Civil, como *Saski Naski*, Eresoinka o Elai-Alai, que estuvieron en primera línea durante el franquismo y llevaron a escena una gran cantidad de suites y estampas folclóricas, poniendo las bases para la estilización de la danza tal y como hoy la conocemos.

## LA SOMBRA DEL GRUPO ARGIA

En 1965, la aparición del grupo Argia dio un vuelco a la dinámica cultural del País Vasco. El grupo emprendió una labor de investigación de las tradiciones locales, combinando fidelidad y brillantez artística, y coreografió una gran cantidad de espectáculos de bailes populares. Esa revolución estuvo representada por la dirección teórica y coreográfica de Juan Antonio Urbeltz, la guía musical de Marian Arregi, y el talento de los hombres y mujeres que integraban el grupo.


18


19

zenbaitetan erabat galduta zeuden errepertorioak berpiztu eta zirkulazioan jarri zituen Argiak. *Nafarroa* (1970), *Gipuzkoa* (1972), *Lapurdi* (1974) eta *Zuberoa* (1978) herrialdeei buruzko dantza-programa monografikoek goitik behera aldatu zuten euskal dantzen argazkia. Argiaren akuiluak suspertuta, beste zenbait taldek bide berberari jarraitu zioten. Aipatzekoak dira, besteak beste, Iruñeko Ortzadarrek Nafarroako folkloreaz egindako bilketa-lana eta berregiteak, Galdakaoko Andra Mari dantza-taldeak Bizkaiko eta Nafarroako dantzei egindako ekarpenak edo Begiraleak taldeak eta Lapurtarrak batasunak Lapurdiko inauteriaren berrezartzean egindako lana.

1988an estreinatu zuten *Zortziko* ikuskizunarekin mugarri bat ezarri zen euskal dantzaren historian. Frantziako Confolens herrian nazioarteko folklore-jaialdi entzutetsua antolatzen zen, eta bere zuzendariak, Henri Coursaget-ek pentsatu zuen urte hartan Euskal Herriak izan behar zuela jaialdiko herrialde gonbidatu nagusia. Iparraldeko dantzarien biltzarreko buruei proposamena bideratu, eta haiek Juan Antonio Urbeltzi eman zioten ikuskizun nagusia prestatzeko ardura. Horrela jaio zen *Zortziko*, Argiaren zuzendaritzapean 200 dantzari eta musikari bildu zituen euskal dantzen sintesi-ikuskizuna.

*Zortziko* ikuskizunean hainbat dantzari-taldetako dantzariek parte hartu arren, Argiaren lan-moldeak antzematen ziren dantzakeran, jantzien distiran, musikaren xalotasunean, baita tradizioa eta sorkuntza enbor bereko ezpal gisa aurkezteko gaitasunean ere. Confolensen estreinatu ondoren hiru urtez Euskal Herriko antzokietan eta pilotalekuetan eman zen, eta 1991an *Alakiketan* izeneko segidarekin jarraitu zuen. 1994an,

**19.** *Irrakada*, Argia dantzari-taldea. 2009.
**20.** Andra Mari dantzari-taldea jotak dantzatzen. 2011.





**19.** *Irrakada*, grupo de danza Argia. 2009.
**20.** Grupo de baile Andra Mari bailando jotas. 2011.

Por medio de grandes espectáculos monográficos que giraban en torno a provincias y temas concretos, el grupo Argia consiguió revivir y poner en circulación repertorios que o estaban ocultos, o a punto de desaparecer, o incluso se habían dado por perdidos. Los programas sobre *Nafarroa* (1970), *Gipuzkoa* (1972), *Lapurdi* (1974) y *Zuberoa* (1978), sin ir más lejos, transformaron por completo el paisaje de las danzas vascas. Aguijoneados por su ejemplo, muchos grupos emprendieron el camino inaugurado por Argia; así, por ejemplo, el grupo Ortzadar de Pamplona, que recopiló y reconstruyó una buena muestra del folclore navarro, el grupo Andra Mari de Galdakao (Bizkaia), cuyo trabajo se centró en las danzas de Navarra y Bizkaia, o los grupos Begiraleak y Lapurtarrak, a los que se debe una ingente labor de recuperación de los carnavales labortanos.

El espectáculo *Zortziko,* estrenado en 1988, marcó un hito en la historia de las danzas vascas. El director del festival internacional de folclore de Confolens (Francia), Henri Coursaget, pensó que el país invitado en el festival de aquel año debía ser el País Vasco, para lo cual emitió invitación formal a los responsables de los y las *dantzaris* de Iparralde, que inmediatamente se pusieron en contacto con Juan Antonio Urbeltz para ofrecerle la organización del espectáculo central. Así surgió la idea de crear *Zortziko*, el espectáculo sobre las danzas vascas que reunió, bajo el auspicio del grupo Argia, a más de 200 bailarines, bailarinas y profesionales de la música.

Aunque el elenco de *dantzaris* de *Zortziko* estuviera compuesto de bailarines y bailarinas procedentes de diversos grupos de danza, la huella de Argia era perfectamente visible en el estilo, en el brillo del vestuario, en la delicadeza musical y en la capacidad de entroncar tradición con creación. Tras el estreno en Confolens, el espectáculo estuvo de gira durante tres años y recorrió un sinfín de auditorios y frontones de todo el país, después de lo cual, en 1991, el grupo Argia dio otro paso y estrenó *Alakiketan,*


20




**21.** *Pamperruque*, Maritzuli dantza-konpainia. Biarritz, 2009.

*Saski Naski* euskal dantzen ikuskizuna Pariseko Champs-Élysées antzokian eman zenetik 65 urte bete zirenean, beste euskal dantzen ikuskizun bat, *Alakiketan*, aurkeztu zen bertan.

Argiak kultura tradizionalean dantzak jokatutako rol sinbolikoak identifikatzen eta metafora horiek agertoki berrietan biziaraziko dituzten dantza-ikuskizunak sortzen jarraitu du azken hamarkadetan. Ipuinen eta elezaharren mundua dantzan jarri zuten *Kondharian* (1997) ikuskizunean, dantza klasikoan egiten den euskal urratsa aldarrikatu zuten *Pas de Basque* (2002) izenekoan, Japonia eta Euskal Herria elkartzen dituen atsotitzarekin jolastu zuten *Axeri Boda* (2008) sorkuntzan, Jaurrietako emakumeen dantza egin zutenetik 40. urtemuga ospatu zuten *Axuri Beltza* (2009) bilduman, Corpus eguneko jaiaren legatua eszenaratu zuten *Besta Berri* (2012) ikuskizunean eta klasiko literario baten koreografia-eszenaratzea gauzatu zuten *Martin Zalakain* (2017) lanean.

Dantza-taldearen egitura gaindituz, hainbat dantza-talde, dantzari, musikari eta dantza-irakasle biltzen dituen talde-lan zabalaren bidez gauzatzen ditu proiektuak, eta Argiaren (Donostia) orbita horretan dihardute azken urteotan Duguna (Iruñea), Maritzuli (Biarritz-Baiona), Kezka (Eibar), Haritz (Elgoibar), Elai Alai (Portugalete), Gure Kai (Deba), Astigar (Astigarraga) eta Arkaitz (Añorga) taldeek, besteak beste. Juan Antonio Urbeltzek eta Argiak euskal dantzaren eszenari egindako ekarpen koreografikoa eta sinbolikoa Telmo Esnalek zuzendutako *Dantza* (2018) filmean jasota geratu da.

Argiaren itzalak lursail asko estali ditu, eta soro horietan beste hainbat ekimen loratu dira. Claude Iruretagoiena, Betti Betelu dantza-





**21.** *Pamperruque*, compañía Maritzuli. Biarritz (Lapurdi), 2009.

espectáculo que el grupo llevó al Teatro de los Campos Elíseos de París en 1994, veinticinco años después de que se estrenara allí otro espectáculo vasco, *Saski Naski*.

En las última décadas, el grupo Argia ha proseguido con su labor de creación, con espectáculos en los que ha conseguido llevar a escena —eso sí, de manera renovada— el papel simbólico que ha desempeñado la danza en la cultura tradicional. Así, por ejemplo, el espectáculo *Kondharian* (1997) representó un intento de escenificación del mundo de los cuentos y leyendas; en *Pas de Basque* (2002), reivindicaron el famoso paso de baile vasco del repertorio de danza clásica; el punto de partida de *Axeri Boda* (2008) era un refrán que unía al País Vasco con la cultura japonesa; conmemoraron con *Axuri Beltza* (2009) el cuadragésimo aniversario de la danza de Jaurrieta; en *Besta Berri* (2012), escenificaron el legado de la fiesta del Corpus; y, finalmente, el espectáculo *Martin Zalakain* (2007) sirvió para coreografiar el clásico literario del mismo nombre.

Superando la estructura grupal, Argia utiliza para sus proyectos grandes equipos de trabajo compuestos por profesionales de la danza y la música, y muchos otros grupos han seguido su ejemplo en los últimos años; tal es el caso, entre otros, de Duguna (Pamplona) en Navarra, Maritzuli (Biarritz y Bayona) en Lapurdi, de Elai Alai (Portugalete) en Bizkaia y de Kezka (Eibar), Haritz (Elgoibar), Gure Kai (Deba), Astigar (Astigarraga) y Arkaitz (Añorga) en Gipuzkoa.

La sombra del grupo Argia ha sido y es alargada, y a su cobijo se han creado muchos y muy interesantes proyectos. Por ejemplo, Claude Iruretagoiena, discípulo del maestro labortano Betti Betelu, después de muchos años de colaboración con el grupo Argia, lleva años presentando sus propios proyectos con la compañía Maritzuli. Las propuestas escénicas, siempre coloridas, y ricos vestuarios de Iruretagoiena son el fruto de una profunda investigación y un estupendo medio para la transmisión del patrimonio. Junto con la compañía Maritzuli, Iruretagoiena ha creado obras como *Ixtorio Mixtorio* (1997), *Ingura Mingura* (2000) y *Kutxa a la Pil* (2005). En el último espectáculo de la compañía hasta el momento, *Aurrez aurre* (2009), el coreógrafo Jon Iruretagoiena comparó las danzas tradicionales vascas con las del Renacimiento italiano. Compaginando el escenario con la calle y la plaza, Maritzuli ha recreado, asimismo, las *ezpata-dantzas* y carnavales de Biarritz (Lapurdi).

## LAS DANZAS TRADICIONALES COMO META

En muchos sitios, han sido los grupos locales quienes, con mimo y brillantez, han conservado y dado a conocer sus propias danzas y tradiciones. Justamente es eso lo que han hecho, por ejemplo, el grupo Oñatz con las danzas del Corpus de Oñati (Gipuzkoa), el grupo Oinarin con las danzas de troqueo de Antzuola (Gipuzkoa) y el grupo Oinkari con las danzas de carnaval de Beskoitze (Lapurdi). Sin embargo, en otras ocasiones, los pueblos pequeños no cuentan con suficiente gente joven como para dotar de calidad a sus festivales, por lo que la conservación de su repertorio dede necesariamente quedar en manos de compañías de pueblos y ciudades más grandes.

Algunos grupos de danza han sobresalido en la investigación y reconstrucción de todo ese legado tradicional, cuyo repertorio también se han encargado de llevar a escena. A este respecto, cabe mencionar a

maisu lapurtarraren ikasle izandakoa, hainbat urtez aritu da Argiarekin elkarlanean, eta Maritzuli konpainiarekin aurkeztu ditu bere lanak. Ondarearen transmisioa eszenaren bitartez gauzatzeko, ikerketa, jantzitegi aberatsa eta eszenaratze koloretsuak proposatu ditu Iruretagoienak. *Ixtorio Mixtorio* (1997), *Ingura Mingura* (2000) edo *Kutxa a la Pil* (2005) izan dira Maritzuliren sorkuntza-lanetako batzuk, eta Jon Iruretagoienak gidatutako *Aurrez-aurre* (2009) azken ikuskizunarekin Italiako Errenazimentuko dantzen eta euskal dantza tradizionalen arteko konparaketa aurkeztu zuen. Agertokia kalearekin eta plazarekin uztartuz, Biarritzeko ezpata-dantza eta inauteriak birsortu ditu Maritzulik.

## TRADIZIOZKO DANTZAK HELBURU

Tokian tokiko tradizio askotan herriko taldeak dira beren herriko dantzak mimoz eta distiraz zaindu eta plazaratzen dituztenak: Oñatz taldeak Oñatiko Corpus eguneko dantzak, Oinarin taldeak Antzuolako trokeo-dantzak edo Oinkari taldeak Beskoitzeko inauteri-dantzak, adibidez. Haatik, beste zenbaitetan, herrian bertan ez dago nahikoa gazte dantza-festari merezi duen mailan eusteko, eta herri handietako eta hiriburuetako taldeek eusten diete zenbait dantza-errepertoriori.

Badira hainbat dantza-talde, tradizioaren ikerketa- eta berregite-lanak burutu ondoren, errepertorio horiek eszenaratzen edo plazaratzen nabarmendu direnak. Galdakaoko Andra Mari dantzari-taldeak Bizkaiko eta Nafarroako hainbat errepertorio aztertzen, biltzen eta zabaltzen lan eskerga egiten ari da aspaldian. Bizkaian bertan, Portugaleteko Elai Alai, Bilboko Basurtu auzoko Beti Jai Alai edo Santutxuko Gaztedi taldeak dantza tradizionalekin osatutako ikuskizunak prestatu, eta ezagutzera eman dituzte beste zenbait talderekin batera.

Arabako dantzen bilketa eta hedapenean nabarmendu da Gasteizko Indarra taldea, eta Nafarroako folklore-dantzak ikertzen eta ezagutzera ematen lan handia egin du Iruñeko Ortzadar elkarteak. Iruñean bertan, Duguna taldeak, hiriburuko dantza-tradizioen birsortze-lan eredugarria egin du. Aitzindariak elkarteak, Zuberoako zenbait herritako dantza-taldeak biltzeaz gain, herrialde hartako dantza-tradizioan oinarritutako ikuskizunak antolatzen ditu. Gipuzkoako Goierriko dantzen errepertorio adierazgarria, bestetik, berrituta eta txukunduta plazaratu du Beasaingo Aurtzaka dantza-taldeak. Donostiako Goizaldi, Añorgako Arkaitz, Irungo Kemen, Azkoitiko Sahatsa, Tolosako Udaberri edo Elgoibarko Haritz dantza-taldeak, Gipuzkoako dantza tradizionalak nagusi dituzten emanaldietan nabarmendu dira. Kresala taldeak, berriz, luzaroan bere zuzendari izan zen Gene Yurrek landutako estiloari jarraitu dio, eta euskal dantza tradizionalak eszenaratzeko dantzakera loratua eta teatralizatua darabil.

## DANTZA TRADIZIONALAK ABIAPUNTU

Azken urteotan, folklore-dantzak abiapuntu hartuta eszenara begira ikuskizunak sortzen dituzten taldeak ugaldu dira. XX. mendearen lehen erdian *Saski Naski*k, Eresoinkak eta Elai-Alaik irekitako bidetik, Olaeta, Oldarra, Etorki edo Schola Cantorum taldeek jarraitutako joera emankorra izan da. Eredu honen ezaugarriak dantza tradizionaletan oinarritutako








**22.** Trinitate erromeria. Kuartango, 2016.

**22.** Romería de la Trinidad. Kuartango (Araba), 2016.

los grupos Andra Mari de Galdakao, a quien se debe un ingente trabajo de investigación, recopilación y difusión de parte del repertorio de Bizkaia y Navarra, y Elai Alai de Portugalete, ambos de Bizkaia, que en colaboración con Beti Jai Alai, del barrio bilbaíno de Basurto, y Gaztedi, del también barrio bilbaíno de Santutxu, han creado y difundido una gran cantidad de espectáculos de danzas tradicionales.

En Araba, el grupo Indarra de Vitoria-Gasteiz ha realizado un notable trabajo de recopilación y difusión de las danzas alavesas, y la asociación Ortzadar de Pamplona ha hecho lo propio con el folclore navarro, al que habría que añadir la ejemplar labor de reconstrucción de la tradición de danzas de la capital navarra realizada por el grupo Duguna. La formación Aitzindariak, además de aglutinar a varios grupos de danza de Zuberoa, organiza espectáculos basados en la rica tradición folclórica de ese territorio. Por otro lado, el significativo repertorio de danzas de la comarca del Goierri (Gipuzkoa), ha sido profundamente renovado y llevado a escena por el grupo Aurtzaka de Beasain. Sin salir de Gipuzkoa, los grupos Goizaldi (Donostia/San Sebastián), Arkaitz (Añorga), Kemen (Irun), Sahatsa (Azkoitia), Udaberri (Tolosa) y Haritz (Elgoibar), han sobresalido en la puesta en escena de espectáculos de danzas tradicionales, en tanto que el grupo Kresala, siguiendo el estilo marcado por Gene Yurre, su director durante largo tiempo, se ha especializado en la creación de espectáculos de danzas vascas mucho más floridas y teatralizadas.



**23.** *Biz Hitza*, Aukeran dantza-konpainia. 2019.

suiteak, balletaren estetikara hurbildu nahi duen dantzakera estilizatua, kantua eta dantza uztartzeko joera eta dantzaren erabilera narratiboa dira. Mende aldaketarekin batera, ordura arteko talde handien (40-50 lagunek osatutakoak) ondoan, talde txikiagoak (5-10 kide ingurukoak) sortzen hasi ziren.

Estilo horretako tamaina txikiko lehen taldea Gozategi musika-taldearen emanaldietan aurkeztu zen 1996. urtean, Jesús Mari Garateren ekimenez. Bertan parte hartu zuen, besteak beste, Edu Muruamendiarazek; garai hartan aurresku eta dantza solte txapelketetan nabarmendu zen eta ordura arte Koruko Ama Birjinaren Eskola —Schola Cantorum— taldean dantzari aritutakoa zen. 1997an Aukeran dantza-konpainia sortu zuen Muruamendiarazek. Harrezkero, antzoki-sarean





**23.** Espectáculo *Biz Hitza*, Compañía de danza Aukeran. 2019.

## LAS DANZAS TRADICIONALES COMO PUNTO DE PARTIDA

En los últimos años, han proliferado los grupos que crean sus espectáculos a partir de nuestro patrimonio folclórico, y que en la tradición que, en la primera mitad del siglo XX, inauguraron *Saski Naski* y los grupos Eresoinka y Elai-Alai, y siguiendo el fructífero ejemplo de los Olaeta, Oldarra, Etorki y Schola Cantorum, han acercado las danzas tradicionales a la estética del ballet, depurándolas estilística y narrativamente y combinando canto y danza. Con el cambio de siglo, junto a los grupos más grandes, formados por 40 o 50 profesionales, se crearon grupos más pequeños de 5 o 10 *dantzaris*.

El primer grupo de este estilo se creó por iniciativa de Jesús Mari Garate y fue presentado, en 1996, en una actuación del grupo de música Gozategi. En él participó, entre otros, Edu Muruamendiaraz, que había resultado ganador de varios certámenes de *aurresku* y baile suelto y formaba parte, en aquel momento, del grupo de baile de la Schola Cantorum de Nuestra Señora del Coro, en Donostia/San Sebastián. En 1997, el propio Muruamendiaraz creó la compañía Aukeran y emprendió un camino cargado de éxitos que lo llevó a actuar en la mayoría de teatros y auditorios del país, camino que han seguido después otros grupos y compañías. Partiendo de los pasos tradicionales de las *dantzari-dantzas* y bailes sueltos de Gipuzkoa, Zuberoa y Bizkaia, el grupo Aukeran ha creado varios espectáculos adaptando las danzas tradicionales a los nuevos estilos musicales y a las necesidades de vestuario e iluminación. Algunos de estos trabajos son *Sutargi* (2001), *Izena duen guztia omen da* (2003), *Bideak* (2006), *Burniak* (2011) y *Biz Hitza* (2019).

En 1999, un cuarteto que por aquella época participaba en los campeonatos de *aurresku* y baile suelto de todo el país, el grupo Laxok, ofreció varias funciones del espectáculo *Upeletan erronka*. Dos años después, en 2001, uno de sus integrantes, el *dantzari* Jon Maya, creó su propia compañía, Kukai, que, junto con Mireia Gabilondo y el grupo Tanttaka, ha venido creando desde entonces una gran cantidad de obras en las que, a través de un lenguaje completamente contemporáneo, ofrece coreografías basadas en la tradición de las danzas vascas, entre las que hay que destacar *1937, gogoaren bidezidorretatik* (2002), *Otehitzari Biraka* (2005), *Hnuy illa...* (2008), *Gelajauziak* (2014), *Oskara* (2016) y *Erritu*. En 2017, obtuvieron el Premio Nacional de Danza.

Aukeran y Kukai son dos de los grupos más significativos de cuantos desarrollan en la actualidad propuestas estéticas modernas que beben directamente de nuestro patrimonio coreográfico tradicional, y sin duda también los que más actuaciones ofrecen en todo el País Vasco. El sector teatral, los medios de comunicación y el público en general han acogido calurosamente las propuestas de ambos grupos, que, con un estilo depurado, combinan los pasos del folclore tradicional con otros lenguajes coreográficos y, en grupos de alrededor de 10 *dantzaris,* producen espectáculos que se adaptan perfectamente a salas pequeñas o medianas. En ellos, hay dos aspectos de la máxima importancia: la iluminación y la música. Con respecto a lo último, Kukai emplea en sus creaciones obras musicales contemporáneas y obras de música folk, habitualmente grabadas, aunque también ha actuado con música en directo.

Siguiendo el ejemplo de Aukeran y Kukai, en los últimos años varios grupos vienen creando sus espectáculos y coreografías a partir del modelo de las danzas tradicionales. El *dantzari* Aiert Beobide, que formó parte del

arrakastaz zabaldu dira konpainiak egindako ikuskizunak. Gipuzkoako, Zuberoako, Bizkaiko dantzari-dantzako eta dantza solte txapelketetako urratsak oinarri hartuta, musika, janzkera eta argiztapen berrietara egokitutako koreografiak batzen dituzte Aukeranen lanek. *Sutargi* (2001), *Izena duen guztia omen da* (2003), *Bideak* (2006), *Burniak* (2011) eta *Biz Hitza* (2019) dira produzitu dituen lanetako batzuk.

1999an, aurresku eta dantza solte txapelketetan parte hartzen ari zen laukote batek formatu txikiko beste ikuskizun bat prestatu zuen; hain zuzen, *Upeletan Erronka* ikuskizunaren hainbat emanaldi eskaini zituen Laxok taldeak eta, 2001ean, Jon Maya taldeko kideak bere konpainia propioa sortu zuen: Kukai. Mireia Gabilondo eta Tanttaka antzerki-konpainiarekin elkarlanean zenbait lan egin ditu Kukaik. Euskal dantza tradizionaleko urratsetan oinarritutako koreografiak eta dantza-lengoaia garaikideak uztartu dituzte. *1937, gogoaren bidezidorretatik* (2002), *Otehitzari Biraka* (2005), *Hnuy illa...* (2008), *Gelajauziak* (2014), *Oskara* (2016) eta *Erritu* (2018) dira Kukaik ekoitzitako lan batzuk. Kukaik Espainiako Dantza Sari Nazionala jaso zuen 2017. urtean.

Aukeran eta Kukai euskal dantza tradizionaletik abiatuz estetika modernoko ikuskizunak proposatzen dituzten bi talde azpimarragarrienak dira, eta 2010eko hamarkadan Euskal Herrian dantza-emanaldi gehien egin dituztenak dira. Antzoki-sareak, komunikabideek eta ikusleek harrera beroa egin diote bi talde horiek urratutako bideari. Oinarri tradizionaletik abiatuta dantzakera estilizatua darabilte, eta folklore-dantzetako urratsak beste koreografia-lengoaiekin lotzen dituzte. Hamar dantzari inguruko taldeak dira, eta antzoki txikietara eta ertainetara egokitzen diren ikuskizunak ekoizten dituzte. Argiztapenak garrantzi handia izaten du bi taldeen ikuskizunetan, eta musikari dagokionez folk-estiloko eta musika garaikideko sortzaileen lanak darabiltzate. Zuzeneko musikariekin aritu izan diren arren, grabatutako soinu-banda darabilte gehienetan.

Aukeran eta Kukai taldeen ereduari jarraituz hainbat talde sortu dira euskal dantza tradizionaletik abiatuta koreografia berriak eta ikuskizunak sortzen ari direnak. Aukeran taldean hamar urtetik gora egin dituen Aiert Beobide dantzariak Haatik konpainia zuzentzen du. Villabonako Oinkari taldeak ikuskizun propioak eta antzerki- eta musika-taldeekin elkarlanak bateratzen ditu. Lapurdin, Bilaka kolektiboak euskal dantzatik abiatutako sorkuntza-lanak sustatzen ditu.

**24.** *Oskara*, Kukai dantza-konpainia. Victoria Eugenia antzokia, Donostia, 2016.





grupo Aukeran durante más de diez años, dirige hoy la compañía Haatik; el grupo Oinkari, de Villabona (Gipuzkoa), combina sus propios espectáculos con colaboraciones con distintos grupos de música; y el colectivo Bilaka, de Lapurdi, no ceja en su empeño de promocionar espectáculos de danzas vascas.

**24.** Espectáculo *Oskara*, compañía de danza Kukai. Teatro Victoria Eugenia, Donostia/San Sebastián (Gipuzkoa), 2016.



# Dantzaldi gidatuak eta dantzazaleak

Dantza tradizionalen emanaldiak ikusteko aukerez gain, gero eta zabalduago daude zuzenean dantza egin ahal izateko aukera eskaintzen duten dantzaldiak. Dantza-taldeetako parte-hartzaileak dantzariak badira, gidatutako erromeria horien parte-hartzaileak dantzazaleak dira. Musika-talde baten zuzeneko doinura, dantza-maisu batek gidatzen du dantzaldia, egingo duten dantza bakoitzari buruzko argibideak eman, eta dantza-ezagutzarik ez duten parte-hartzaileak dantzan jartzen ditu.

1990eko hamarkadan, Gasteizko Udalaren Folklore Eskolak dantzaldi-egutegia antolatu zuen eta eskolako irakasleak jarri zituen dantzaldiak dinamizatzen. Horiek eta hiriburuetako festetan antolatzen ziren dantzaldi irekiak izan daitezke gidatutako erromerien aurrekariak Euskal Herrian. Garai bertsuan, Lapurdiko kostaldean dantza-jauziak edo mutxikoak dantzatzen ikasteko ikastaroak ugaritu, eta asteburuetako mutxiko-dantzaldiak zabalduz joan ziren. Bilboko Kafe Antzokian *Urbeltzen Dantza Ganbara* dantzaldia abian jarri zuten, non Juan Antonio Urbeltz aritu zen gidari-lanetan eta Marian Arregi emaztea eta Mikel Urbeltz semea musikari-lanak bete zituzten.

Nolanahi ere, dantzaldi gidatuen eztanda Patxi Pérez dantza-irakasle lapurtarraren eskutik gertatu zen. Frantziako Gennetines herrian egiten den *Le Grand Bal de l'Europe* jaialdian erabiltzen zen eredua aplikatzen hasi zen euskal dantzekin eta Europan zabaldutako beste hainbat dantzarekin. Batbiru taldearekin, Tapia eta Leturiarekin eta Patxi eta Konpainiarekin ehunka plaza dantzarazi ditu Patxi Pérezek azken mende honen hasieratik.

Dantzazaleen mugimendua hazten ari da XXI. mendean ere. Sabin Bikandik eta Patxi Labordak gidatuta, Aiko taldeak dantzaren irakaskuntza-ereduak eraberritzeko ekarpenak egin ditu eta dantzazaleen bilkurak ugaldu eta sistematizatu egin dira. Jokin Otamendi, Aniez Ceccon, Patxi Montero, Mikel Lasarte, Jokin Irungarai, Josu Garate eta beste hainbat dantzaldi-gidari aritzen da gidatutako erromeriak plazaratzen eta herritarrak dantzan jartzen.





# Bailes guiados y la pasión por el baile

Además de la oportunidad de ver actuaciones de baile tradicional, cada vez hay más festivales de bailes que también permiten bailar en directo a quienes asisten a ellos. En este tipo de romerías guiadas, en los que participan tanto *dantzaris* como aficionados y aficionadas al baile, un maestro o maestra guía a un grupo de personas sin conocimientos previos, que bailan al ritmo de la música en directo.

En la década de 1990, la Academia Municipal de Folclore del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz organizó un calendario de bailes y contrató a un grupo de profesores y profesoras para que se encargara de su dinamización. Esta iniciativa, y algún que otro programa de baile libre organizado dentro de la oferta de fiestas de nuestras ciudades, se cuentan entre los más importantes precedentes de las romerías guiadas, a los que podrían añadirse los cursos y festivales de *dantza-jauziak* y *mutxikoak* que empezaron a organizarse por aquella época en la costa de Lapurdi. También fue muy importante la organización en el Kafe Antzokia de Bilbao del festival *Urbeltzen Dantza Ganbara*, en el que Juan Antonio Urbeltz era el encargado de la dirección, mientras que su mujer, Marian Arregi, y su hijo, Mikel Urbeltz, lo eran de la música.

En todo caso, la gran explosión de bailes guiados se produjo cuando al maestro labortano Patxi Pérez empezó a aplicar a las danzas vascas y a otras danzas europeas el modelo de *Le Grand Bal de l'Europe,* festival que se celebraba en el pequeño pueblo francés de Gennetines. Desde comienzos de siglo, Pérez ha recorrido cientos de plazas junto con los grupos Batbiru y Patxi eta Konpainia y los *trikitilaris* Tapia y Leturia.

El movimiento de aficionados al baile no ha dejado de crecer desde las primera década del siglo XXI, cuando, bajo la dirección de Sabin Bikandi y Patxi Laborda, el grupo Aiko renovó los modelos pedagógicos de enseñanza y empezaron a organizarse los primeros encuentros de aficionados y aficionadas, con personas como, por ejemplo, Jokin Otamendi, Aniez Ceccon, Patxi Montero, Mikel Lasarte, Jokin Irungai y Josu Garate como guías.



25

# Euskal dantzarien diaspora

**25.** Itziar Mendizabal, *The firebird,* The Royal Ballet. Royal Opera House, Londres, 2019.

1661ean, Parisen lehen balleta osatzera joan ziren euskaldunen bideari jarraituz, XXI. mendeko lehen hamarkadetan ere, hainbat euskal dantzari bere dantza-ibilbidea atzerrian egiten ari dira. Berrogeita hamar dantzaritik gora dira nazioarteko ballet-konpainiatan eta -proiektutan ari direnak. XX. mendean, zenbait *gerrako umek* eman zituzten lehen urratsak ballet-konpainia entzutetsuetan. Bi izen nabarmendu ziren: Fermín Aldabaldetreku eta Gerardo Viana.

36ko gerrak eztanda egin, eta 1937an gauzak okertzen hasi zirenean, atzerrira bidali zituzten milaka euskal umeren artean izan ziren *Treku* eta Viana. Fermín Aldabaldetreku edo *Pirmin Treku*, zazpi urte zituela iritsi zen Ingalaterrara bere arrebekin, eta nerabezaroan heldu zion dantzari han. Sadler`s Wells Balleten, ondoren Royal Ballet bezala berrizendatu zuten konpainia entzutetsuan aritu zen 1948-1961 bitartean. Gerardo Viana *Vladimiro*, berriz, Sobietar Batasunera atzerriratu zuten gerratik babestu nahian, eta Tulako Musika eta Komedian aritu zen dantzan 1940ko hamarkadan.

Tantoka-tantoka, zenbait dantzarik egin dute atzerrirako bidea han dantzan trebatu eta dantzatik bizibidea ateratzeko. Xabier Urbeltz Alemanian, Wuppertaleko eta Hanburgoko balletetan aritu





# La diáspora de los `dantzaris´ vascos

**25.** Itziar Mendizabal, *The firebird,* The Royal Ballet. Royal Opera House, Londres, 2019.

En la actualidad, muchos de nuestros mejores bailarines y bailarinas han seguido los pasos de los vascos que, en 1661, se fueron a París para formar parte de la primera compañía de ballet de la historia. Se estima que más de cincuenta profesionales de la danza integran hoy las filas de varias compañías extranjeras de ballet. Ahora bien, ya en el siglo XX, algunos «niños y niñas de la guerra», como, por ejemplo, Fermín Aldabaldetreku y Gerardo Viana, dieron sus primeros pasos en el mundo de la danza en las más famosas compañías de baile del mundo.

Cuando en 1937, en plena Guerra Civil, la situación empezó a ser crítica, Treku y Viana fueron expatriados junto con miles de niños y niñas del País Vasco. Fermín Aldabaldetreku o Pirmin Treku llegó a Inglaterra con su hermana a los siete años, y comenzó a bailar siendo adolescente. Entre 1948 y 1961, fue bailarín del Sadler`s Wells Ballet, al que más tarde llamaron Royal Ballet. Gerardo Viana, alias *Vladimiro*, por su parte, recaló, en su huida de la guerra, en la Unión Soviética, donde formó parte, en la década de 1940, del Teatro de la Música y la Comedia de Tula.

Poco a poco, varios bailarines y bailarinas han dado el salto a la escena internacional como medio para estudiar y poder vivir de la danza: Xabier Urbeltz formó parte, en la década de 1960, de los ballets de Wuppertal y Hamburgo, en Alemania; Jon Beitia fue bailarín del Joffrey Ballet de Nueva York; y Hilde Koch y Ion Garnika trabajaron en Frankfurt con William Forsyth. Algunos bailarines y bailarinas recogieron los frutos del trabajo realizado en Donostia/San Sebastián, de manera que se fueron a Europa y bailaron en algunas de las más conocidas compañías de ballet del continente. En la década de 1980, José Ángel Pellejero, Katxua, fue miembro de tres grandes compañías: la de Maurice Béjart, el Cullberg Ballett y la de Pina Bausch; Sandi Gorostidi también bailó en la compañía de Maurice Béjart; Iñaki Landa se fue al Ballet Contemporáneo de Barcelona; en la década de 1990, Leire Ortueta participó en el Royal Ballet del Reino Unido; Josu Mujika trabajó en la Ensemble de Micha van Hoecke; y, finalmente, José Antonio Begiristain formó parte de la Compañía Nacional de Danza de España. Los bailarines y bailarinas vascos de danza clásica y contemporánea no estaban dispuestos a quedarse quietos: el bilbaíno Juan Carlos García creó la compañía Lanònima Imperial, y, por la misma época, el donostiarra Álvaro de la Peña y la iruindarra Inés Boza hicieron lo propio y crearon, respectivamente, las compañías Iliacan y Senza Tempo.

De entre los bailarines y bailarinas que forman parte de la cantera vasca del cambio de milenio, la zumaiarra Lucía Lakarra es sin duda la que más ha brillado. Tras su formación en la Escuela Thalia de Donostia/San Sebastián y en la compañía de Víctor Ullate de Madrid, Lakarra llegó a lo más alto como bailarina del Ballet Nacional de Marsella, bajo la dirección de Roland Petit, y, desde entonces, no ha dejado de recibir los mayores elogios y los premios internacionales más prestigiosos. Entre 1997 y 2002, formó parte del Ballet de San Francisco, y, a partir de 2003, es la estrella del Ballet de la Ópera de Múnich. Entre otros muchos premios, ha recibido el Nijinski y el Benois, dos de los galardones más importantes de la escena internacional, y fue nombrada bailarina de la década en Moscú, en un acto

zen 1960ko hamarkadan; Jon Beitia New Yorken, Joffrey Balleten aritu zen; Hilde Koch eta Ion Garnika Frankfurten, William Forsythekin aritu ziren lanean. Donostian ereindako haziaren ondorioz, zenbait dantzarik hegoak astindu eta Europako talde entzutetsuetan dantzari hasi ziren. 1980ko hamarkadan José Ánjel Pellejero *Katxua* Europako hiru konpainia entzutetsutan aritu zen —Maurice Béjart, Cullberg Ballet eta Pina Bausch—; Béjarten Sandi Gorostidi ere aritu zen; Iñaki Landa Bartzelonako Ballet Contemporáneo taldean; Leire Ortueta Royal Balleten aritu zen 1990eko hamarkadan; Josu Mujika Van Hoecke-k gidatutako Ensemble konpainian; José Antonio Begiristain Espainiako Dantza Konpainian. Dantza klasikoan eta garaikidean euskal dantzariak ez zeuden geldi egoteko: Juan Carlos García bilbotarrak Lanònima Imperial konpainia sortu zuen garai berean, Álvaro de la Peña donostiarrak Iliacan konpainia eta Ines Boza iruindarrak Senza Tempo konpainia sortu zituzten.

Lucía Lakarra zumaiarra da milurteko aldaketa-garaian euskal dantzarien harrobiak eskaini duen izar distiratsuena. Donostiako Thalia akademian eta Madrilgo Víctor Ullateren konpainian trebatu ondoren, Marseillako Balletean Roland Petit-en agindupean jo zuen gailurra, eta harrezkero laudorioak eta nazioarteko sari handienak jaso ditu Lakarrak. San Frantziskoko Balletean aritu zen 1997-2002 bitartean, eta 2003tik Municheko Operako Balleteko izarra da. Besteak beste, Nijinski eta Benois sariak eskuratu ditu, nazioartean balletaren alorrean ematen diren sari ospetsuenak dira, eta hamarkadako dantzari bikainena izendatu dute Moskun, Kremlin Jauregian. Lakarraren dantzakera zehatz, neurtuak eta adierazkorrak munduko antzoki nagusietako ikusleak eta kritikariak liluratu ditu.

Munduko opera-etxe eta tradizio handiko ballet-konpainia arranditsuetan ibilbide profesional arrakastatsuak egiten ari da, baita ere, Itziar Mendizabal. Hondarribiko dantzaria Zuricheko Balletean eta Leipzigen aritu ondoren, Londreseko Royal Ballet ospetsura iritsi zen 2010ean; lehen bakarlaria da bertan. Halaber, Jǐrí Kylián-ek zuzendutako Nederlands Dans Theaterren dantzari-ibilbide oparoa burutu du Urtzi Aranburuk. Igor Yebra, bere aldetik, Madrilgo Erkidegoko Balletean, Erromako Operako Balletean edo Bordeleko Operako Balletean lehen dantzari izan da, besteak beste. Yebra Ivan Beldurgarriaren rola Kremlinen jokatu duen errusiarra ez den lehenengo dantzaria izan da. Bilboko dantzaria Uruguaiko Ballet Nazionalaren zuzendari artistikoa da. Yebrak bezala, Juan Carlos Santamaría koreografoak teknika klasikoa oinarri hartu zuen bere lanean. 2016an zendu zen. 2008an jasotako Espainiako Sari Nazionalak Santamaríak dantzaren alorrean egindako lanari aitortza egin zion.

Berrogeita hamar baino gehiago dira Europan lanean diharduten edo azken urteotan aritu diren euskal dantzariak. Ameriketan, Asian eta Ozeanian ere badira zenbait, baina Europan aritzen dira gehienak. Ander Zabala, Jone San Martín eta Amancio González Frankfurten daude, The Forsythe Companyn; Alicia Amatriain eta Oihane Herrero, Stuttgart Balleten; Asier Uriagereka, Beatriz Uhalte eta Asier Edeso, Monte-Carlo Balleten; Iratxe Ansa eta Jorge Nozal, Nederlands Dans Theaterren; Amaya Lubeigt, Bremengo dantza-konpainian; Amaia Ugartetxe, Veronako Arenako Balleteko dantzaria da; Asier Orbelzu eta Sonia Setién, Vienako Balletekoak; Elvis Val, Hannoverreko Operako Balletean aritu da; Eneka Bordato Lyoneko Operako Balletean; Erick Odriozola

**26.** *Magifique*, Malandain Ballet Biarritz. dFERIA, Victoria Eugenia antzokia, Donostia, 2010.





celebrado en el Palacio del Kremlin. El estilo preciso, medido y expresivo de Lakarra ha entusiasmado al público y a la crítica de todo el mundo.

Dentro del circuito de las más grandes compañías de ópera y ballet de todo el mundo, cabe destacar igualmente la trayectoria de la hondarribiarra Itziar Mendizabal, que, tras su paso por los ballets de Zúrich y Leipzig, recaló en 2010 en el Royal Ballet de Londres como primera bailarina. Asimismo, Urtzi Aranburu ha hecho toda su carrera en el Nederlands Dans Theater de Jǐrí Kylián. Igor Yebra, por su parte, ha sido el primer bailarín del Ballet de la Comunidad de Madrid, del Ballet de la Ópera de Roma y del Ballet de la Ópera de Burdeos. Además, Yebra ha sido el primer bailarín de fuera



**26.** Espectáculo *Magifique*, Malandain Ballet Biarritz. dFERIA, Teatro Victoria Eugenia, Donostia/San Sebastián (Gipuzkoa), 2010.

Marseillan eta Alemanian ibili da; Iker Murillo Zurich Balleten aritu da; Ion Agirretxe Flandeseko Royal Balleten dantzatu da eta Espainiako Dantza Konpainia Nazionalean dihardu; Iñaki Azpillaga, Última Vez-Wim Vandekeybus konpainian; Iñaki Urrutia, Irlanda Balleten; Jaione Zabala, Nuremberg Balleten; Javier Amo eta Jon Beitia Fernández Municheko ballet-konpainian aritu dira; Jon Vallejo Dresdeko Operako ballet-konpainian ari da; Juan Kruz Diaz de Garaio Sasha Waltz & Guests konpainiako kidea da; Juanjo Rodríguez English National Balleten aritu da eta bertan ari da orain Aitor Arrieta; Julliete Villemin, Stuttgarten; Mikel Jauregi, Flandesen; Nerea Barañano, Danimarkako Operako ballet-konpainian; Verónica Villar, Wiesbadeneko ballet-konpainian; Cristina García Fonseca, Zaragozako La Mov konpainian; Marta Coronado, Belgikako Rosas konpainian; Liova Díez, BMK konpainian.

Zenbait euskal dantzari Europatik kanpoko dantza-konpainia profesionaletan ari dira. Iratxe Beorlegi Mexikoko Konpainia Nazionalean ari da; Jean Philippe Malaty-k Aspen Santa Fe Balleten egin du bere bidea. Ipar Amerikan, baita ere, Alfonso Martín Tulsa Ballet Theaterren dantzaria da. Japonian, berriz, K-Ballet Company-n aritu da Carlos Martín.

Aipatutako gehienak dantza klasikoan eta neoklasikoan nabarmendu diren dantzariak dira eta, nagusiki, estilo horretan aritzen diren antzoki publiko, opera-etxe, dantza-konpainia nazional eta dantza-konpainia pribatuetan ari dira. Horietako gehienetan dantza garaikidea indarrez sartu da azken hamarkadetan, eta dantzari gehienak estilo anitzetan lan egiteko prestatuta daude gaur egun.

Badira ordea, antzerki-dantza berrian ari direnak, eta antzoki eta egitura sendorik gabe konpainia txikietan eta malguetan ari direnak. Ikerketa eta sorkuntza, interpretazioa eta koreografia, lankidetza eta erresidentzia-denboraldiak uztartzen dituzte, baita joan-etorrian bizitzeko jarrera ere. Euskal Herrian ondo kostata bultzatzen eta zabaltzen dituzte euren dantza-lanak eta, ondorioz, oin bat atzerrian eta bestea etxean dituztela bizi dira. Mikel Aristegi, Damián Muñoz, Germán Jauregi, Eider Rodríguez, Iker Gómez, Jon Ugarriza, Idoia Zabaleta, Fabián Thomé, Eneko Balerdi eta Saioa Ibáñez dira horietako batzuk.





de Rusia que ha interpretado a Iván el Terrible en el Palacio del Kremlin. En la actualidad, el bailarín bilbaíno es el director del Ballet Nacional de Uruguay. Al igual que Yebra, el coreógrafo Juan Carlos Santamaría también basó todo su trabajo en las técnicas clásicas. En 2008, recibió el Premio Nacional de Danza en reconocimiento a su carrera. Santamaría murió en el año 2016.

Actualmente, hay más de cincuenta bailarines y bailarinas vascos en todo el mundo formando parte de las más grandes compañías de América, Asia, Oceanía y, sobre todo, Europa: Ander Zabala, Jone San Martín y Amancio González, por ejemplo, trabajan en el Forsythe Company de Frankfurt; Alicia Amatriain y Oihane Herrero, en el Stuttgart Ballet; Asier Uriagereka, Beatriz Uhalte y Asier Edeso, en el Ballet de Montecarlo; Iratxe Ansa y Jorge Nozal, en el Nederlands Dans Theater; Amaya Lubeigt, en la Compañía de Danza de Bremen; Amaia Ugartetxe, en el Arena di Verona; Asier Orbelzu y Sonia Setién, en el Ballet de Viena; Elvis Val, en el Ballet de la Ópera de Hannover; Eneka Bordato, en el Ballet de la Ópera de Lyon; Erick Odriozola, en varias compañías de Francia y Alemania; Iker Murillo, en el Ballet de Zúrich; Ion Agirretxe, en el Royal Ballet de Flandes y en la Compañía Nacional de Danza de España; Iñaki Azpillaga, en la compañía Última Vez de Wim Vandekeybus; Iñaki Urrutia, en el Ballet de Irlanda; Jaione Zabala, en el Ballet de Núremberg; Javier Amo y Jon Beitia Fernández, en el Ballet de Múnich; Jon Vallejo, en el Ballet de la Ópera de Dresden; Juan Kruz Díaz de Garaio, en la compañía Sasha Waltz & Guests; Juanjo Rodríguez, en el English National Ballet; Julliete Villemin, en Stuttgart; Mikel Jauregi, en el Royal Ballet de Flandes; Nerea Barañano, en el Ballet de la Ópera de Dinamarca; Verónica Villar, en el Ballet de Wiesbaden; Cristina García Fonseca, en la compañía La Mov de Zaragoza; Marta Coronado, en la compañía Rosas de Bélgica; y Liova Díez, en la compañía BMK.

Entre los y las profesionales que trabajan fuera de Europa, hay que destacar a Iratxe Beorlegi, bailarina de la Compañía Nacional de México, a Jean-Philippe Malaty, cuya trayectoria está íntimamente ligada al Aspen Santa Fe Ballet, y a Alfonso Martín, del Tulsa Ballet Theater, ambos en Estados Unidos, y a Carlos Martín, que trabaja actualmente en el K-Ballet Company de Japón.

Casi todas las personas mencionadas han destacado en el terreno de la danza clásica, y, en efecto, la práctica totalidad de ellas trabajan en auditorios nacionales, teatros de la ópera, y compañías nacionales y privadas de danza de ese ámbito. Ahora bien, todos ellos han recibido una formación polivalente, debido sobre todo a la poderosa presencia de la danza contemporánea en la mayoría de espectáculos de las últimas décadas, y, por tanto, son capaces de bailar diversos estilos de danza.

También hay bailarines y bailarinas que trabajan en el ámbito de la danza de teatro y que viven gracias a estructuras no tan sólidas, dentro de compañías pequeñas y de gran flexibilidad, que combinan la investigación y la creación, la interpretación y la coreografía, y que colaboran con otros artistas o se acogen a programas de residencia; bailarines y bailarinas que, en definitiva, viven en un continuo trajín. En el País Vasco, este tipo de creadores tienen muchas dificultades para dar a conocer sus trabajos, razón por la que deben vivir con un pie aquí y el otro en el extranjero. Entre otros, habría que mencionar a Mikel Aristegi, Damián Muñoz, Germán Jauregi, Eider Rodríguez, Iker Gómez, Jon Ugarriza, Idoia Zabaleta, Fabián Thomé, Eneko Balerdi y Saioa Ibáñez.

# Dantza-maitaleak

Euskal hiriren batek dantzaren aldeko apustu nabarmena egin badu, hori Biarritz da. Koreografia Zentro Nazionala sortu zuten bertan, 1998an, eta harekin batera Ballet Biarritz konpainia, gaur egun Malandain Ballet Biarritz izendapena duena. Izan ere, Thierry Malandain izan da zuzendaria sorreratik, eta bere eskutik ibilbide sendoa burutzen ari da. Balleta abiapuntu eta helburu ditu konpainiak. Malandainek hogeita hiru dantzari ditu bere esanetara. Ez da tamaina horretara hurbiltzen den beste euskal konpainiarik, hala ere, talde txikia da beste ballet-konpainien neurriarekin alderatuz. Irudimena, ausardia eta talentua baliatuz, nortasun berezia eman dio Malandainek Ballet Biarritzi.

Teknika neoklasikoan trebatuta, egungo eskema estetikoak eta aurkezpen-moduak darabiltza Biarritzeko konpainiak. Thierry Malandainek berak sortutako lanek osatzen dute konpainiaren errepertorioa. Dantzaren historiaren maitale handia izanik, lan klasikoen berrirakurketa ausartak egin ditu Malandainek. *Intxaur-hauskailua* (1997), *Magifique* (2009), *Romeo eta Julieta* (2010) eta *Maria-Antonieta* (2019) moduko lanekin nazioarteko antzoki entzutetsuetan bere lana arrakastaz aurkezten ari da. Konpainiak Biarritzen ditu egoitza eta koreografia-zentroa, baina Donostiarekin mugaz gaindiko hitzarmena sinatua duenez, Malandain Ballet Biarritzen lanak batean zein bestean maiz ikus daitezke.

Biarritzek dantzarekin duen lotura estua Koreografia Zentro Nazionalarekin hasi, Malandain Ballet Biarritzekin segi eta *Maitaldia* dantza-jaialdiarekin borobiltzen da. Hogeita hamar jaialditik gora ospatu dira eta tarte horretan ballet konpainia ospetsuenak, abangoardiako talde ausartenak eta euskal konpainia nagusiak ikusi ahal izan dira Biarritzen. Irailean dantzaren aroa da Lapurdiko kostaldeko hirian, eta dagoeneko dantza ikusi eta dantzarekin gozatzeko ohiturak errotu dira bertan.

Biarritzen erditu eta Donostian hazi eta burujabetu zen Dantzaz konpainiak nortasun propioa landu du azken urteotan. Ballet Biarritzen babesean sortu zen, dantzari gazteak babesteko asmoarekin, baina soka askatu, eta Gipuzkoako Diputazioaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesaz, ibilbide propioa egiten ari da. Adriana Pous-en zuzendaritzapean, nazioarteko eta Euskal Herriko dantzari gazteak batu dira konpainiara. Dantzaz konpainia dantza garaikideko errepertorioa jorratzen ari da. Itzik Galili edo Eric Gauthier ibilbide sendoko koreografoen lanekin, Lukas Timulak moduko sortzaile gazteen eta ausarten proposamenekin eta Hilde Koch eta Jone San Martín euskal dantzari eta koreografia-laguntzaile nabarmenen ekarpenekin, Dantzaz konpainiak dantza-programa erakargarriak plazaratu ditu. Euskal dantzazaleak sustatu eta dantzarekin gozaraztea dute helburu. Halaber, ahalegin berezia egiten dute beren ikuskizunak herriz herri eskaini eta dantza garaikidea euskal lurralde osora eramateko.





# Amantes de la danza

Si ha habido una ciudad vasca que haya apostado fuerte por la danza, esa ciudad ha sido Biarritz. La ciudad labortana auspició en 1998 la creación del Centro Coreográfico Nacional y de la que hoy en día se conoce como Malandain Ballet, que debe su nombre al que ha sido su director desde los comienzos, Thierry Malandain, a cuya labor se debe la solidez de la trayectoria de la compañía. No hay en todo el País Vasco ninguna otra compañía de ballet que se acerque al tamaño del Malandain Ballet, que, a pesar de su equipo de 23 bailarines y bailarinas, es una compañía pequeña en comparación con el estándar de otras parecidas. En todo caso, el Malandain Ballet de Biarritz sobresale por la imaginación, la valentía y el talento de su equipo.

La compañía hunde sus raíces en las técnicas neoclásicas, pero emplea esquemas estéticos y puestas en escena más próximos a la sensibilidad contemporánea. Su repertorio está formado fundamentalmente por obras del propio Thierry Malandain, a quien se le nota un gran amor por la historia de la danza y quien, justamente por ello, ha sabido reinterpretar audazmente a los grandes clásicos del género. Como muestra de lo que decimos, ahí están obras como, por ejemplo, *Cascanueces* (1997), *Magifique* (2009), *Romeo y Julieta* (2010) y *María Antonieta* (2019), que se han estrenado en los teatros más prestigiosos del mundo. La compañía tiene sus sede y su centro coreográfico en Biarritz, pero mantiene una estrechísima relación con la ciudad de Donostia/San Sebastián, con la que tiene firmado un acuerdo transfronterizo, por lo que todas sus obras pueden verse en ambas ciudades.

Esta relación entre Biarritz y la danza que comienza con el Centro Coreógrafico Nacional y prosigue con el Malandain Ballet, se estrecha aún más con el festival de danza *Maitaldia*, de la que se han celebrado más de treinta ediciones y que ha conseguido congregar en Biarritz a las compañías de ballet más famosas del mundo, los grupos vanguardistas más atrevidos y las principales compañías vascas. En la costa de Lapurdi, septiembre es sin duda el mes de los amantes de la danza.

En estos últimos años, la compañía Dantzaz, que dio sus primeros pasos en Biarritz y maduró después en Donostia/San Sebastián, ha conseguido forjarse una personalidad propia. Aunque creada al cobijo de la Compañía de Ballet de Biarritz, más tarde rompió amarras con ella y emprendió un camino en solitario gracias a la ayuda de la Diputación Foral de Gipuzkoa y del Gobierno Vasco. Bajo la dirección de Adriana Pous, la compañía Dantzaz aglutina a bailarines y bailarinas jóvenes tanto del País Vasco como del extranjero y su repertorio se compone de obras fundamentalmente contemporáneas y de programas de baile sumamente atractivos, firmados, entre otros, por los coreógrafos Itzik Galili y Eric Gauthier, por el joven y atrevido creador Lukas Timulak, y por las notabilísimas bailarinas y coreógrafas Hilde Koch y Jone San Martín. La compañía tiene por objeto atraer al mayor número posible de aficionados al baile y hacerlos disfrutar, para lo cual ofrece sus espectáculos de danza contemporánea en todos los pueblos, ciudades y territorios del país.



# Sortzaile glokalak

Berrogei urtetik gora dira euskal dantza garaikidearen aitzindariek lehen ahaleginak eta lehen joan-etorriak egin zituztela. 1960ko hamarkada bukaeran José Lainez eta Concha Martínez bide-erakusleak izan ziren eta ordura arte Euskal Herrian arrotzak ziren dantzaren forma berriak landu zituzten. Herbeheretako Het National Balleten aritu ziren dantzan, eta Donostian Anexa dantza garaikideko taldea sortu zuten. Anexa taldearen bidez dantza garaikidearen lurra goldatu zuten, eta haiek eragindako olatuak hainbat dantzari eta irakasle dantzan jarri zituen; besteak beste, Iñaki Landa, Julio Durán, Mentxu Medel, Mentxu Alkorta, Javier Legorburu, Katxua eta Ana Moreno dantzari buru-belarri lotu zitzaizkion. Iruñera aldatuta, Laineztarrek Yauskari taldea sortu zuten. Iparraldean, Mizel Théret-ek Ekarle konpainia eratu eta dantza garaikidearen alorrean gaurdaino jarraitu duen sorkuntza-ibilbide luzeari ekin zion.

Ondotik etorri diren gehienek kanpora jo dute ikastera eta, dinamika profesionaletan hasi direnean, batetik bestera ibiltzera ohitu dira. Badira operazio-basea Euskal Herrian ezartzea erabaki dutenak, nahiz eta jakin dantza-sorkuntzak eta -hedapenak erakunde, programatzaile, komunikabide eta ikusleen aldetik babes urria duela. Egoitza etxean izan arren, eserleku finkorik gabekoa da eta, beraz, atzerrira joan eta etxera itzultzen jarraitu dute; ikasten, ikusten, konpartitzen, irakasten eta desikasten. Eta, aldi berean, emanaldiak eskaintzen, saltzen eta, Euskal Herrian jarraitu ahal izateko, ogia nola edo hala irabazten. Beste

**27.** Itzik Galiliren *Things I Told Nobody* ikuskizunaren pasartea, Dantzaz konpainia. Donostia, 2013.
**28.** *NAN*, Ertza konpainia. Gasteszena antzokia, Donostia, 2013.





# Creadores glocales

**27.** Parte del espectáculo *Things I Told Nobody* de Itzik Galili, compañía de danza Dantzaz. Donostia/San Sebastián (Gipuzkoa), 2013.
**28.** Espectáculo *NAN*, compañía de danza Ertza. Sala Gastezena, Donostia/San Sebastián, 2013.

Ya han pasado más de cuarenta años desde que los precursores de la danza vasca contemporánea dieron sus primeros grandes pasos. A finales de la década de 1960, José Lainez y Concha Martínez desbrozaron el camino para que los estilos de danza que por aquella época resultaban más extraños consiguieran asentarse en el País Vasco. Ambos fueron bailarines del Het National Ballet, en los Países Bajos, y crearon en Donostia/San Sebastián el grupo Anexa, a través del cual abonaron el terreno de la danza contemporánea, que más tarde daría figuras de la talla de Iñaki Landa, Julio Durán, Mentxu Medel, Mentxu Alkorta, Javier Legorburu, Katxua o Ana Moreno, entre otros muchos. Más tarde, en Pamplona, los Lainez crearon el grupo Yauskari. En Iparralde, Mizel Théret creó la compañía Ekarle, emprendiendo así una carrera de lo más fértil en el ámbito de la creación de la danza contemporánea.

Quienes han venido después se han ido fuera o a estudiar o a seguir con su carrera profesional, y, por lo tanto, se han acostumbrado a vivir de un lado para otro. Algunos de ellos tienen su base de operaciones en el País Vasco, pero saben de sobra que aquí la difusión del tipo de obras que ellos y ellas crean apenas si obtiene la ayuda y el reconocimiento de instituciones, programadores, medios de comunicación y público en general. Aunque tengan su sede aquí, la tierra que pisan es absolutamente inestable, de manera que su trasiego no tiene fin: al viaje al extranjero le





**29.** *N O W*, LASALA konpainia. 2016.

zenbaitek bidea, harremanak, lankideak zein proiektuak atzerrian dituzte, baina bihotzak etxera ekartzen ditu eta ustez kontrako bidea egiten saiatzen dira.

Damián Muñoz gasteiztarrak Bartzelonan du egoitza 2010. urte ingurutik eta, Virginia Garcíarekin batera, bere lan gehienak han produzitu ditu. Muñozek, 1995ean bere konpainia sortu zuenetik, giza harremanak malenkoniaz dantzatuz ibilbide artistiko sakona borobildu du. Traspasos dantza-konpainian eman zituen lehen urratsak eta ondoren Puertas Abiertas eta Moaré konpainietan jardun zuen. Virginia Garcíarekin sortu zuen La Intrusa konpainiarekin emanaldiak egin ditu hogeita bost herrialdetan.

Mikel Aristegi, Donostiara maiz itzultzen bada ere, Alemanian bizi da aspaldian. Dantza garaikideko ikasketak Essen-en egin, eta Alemanian jardun du nagusiki, baina Suitzan, Italian eta Euskal Herrian ere egin ditu koreografia-lanak. Aristegi Sasha Waltz nazioarteko sortzaile entzutetsuarekin dantzari- eta koreografo-lanetan aritu da.

Asier Zabaletak joan-etorriko ibilbidea egin du. Ezkioko dantzariak Adeshoras eta Hojarasca moduko konpainietan dantzatu ondoren, Suitzara jo eta 1999-2004 bitartean Alias konpainiarekin jardun zuen dantzari- eta sorkuntza-lanetan. Ondoren, Euskal Herrira itzuli eta Ertza konpainia sortu zuen non produkzio pertsonal sendoa garatu duen. Zabaleta euskal dantza garaikidearen nahitaezko erreferentzia bihurtu da.





**29.** Espectáculo *N O W*, compañía LASALA. 2016.

sigue la vuelta a casa; y, en el camino, aprenden y desaprenden, observan, comparten y enseñan, sin olvidar, claro está, que también deben ofrecer sus espectáculos para poder seguir en el País Vasco y ganarse el sustento de alguna forma. Sin embargo, el trabajo, la red de relaciones y los proyectos de otros muchos bailarines y bailarinas están fuera, y, aunque el corazón lo tengan en casa, recorren el camino inverso al de quienes viven aquí.

Desde aproximadamente el año 2010, el gasteiztarra Damián Muñoz tiene su sede en Barcelona, donde produce casi todos sus proyectos en colaboración con Virginia García. En 1995 creó su propia compañía, y, desde entonces, no ha parado de enriquecer una muy interesante trayectoria basada en un tipo de danza que refleja la melancolía de las relaciones humanas. Comenzó su carrera en la compañía Traspasos, a lo que siguió su paso por las compañías Puertas Abiertas y Moaré. Ha visitado 25 países con La Intrusa, compañía que creó junto con Virginia García.

A pesar de sus muchas visitas a Donostia/San Sebastián, Mikel Arregi lleva ya muchos años viviendo en Alemania. Estudió danza contemporánea en Essen, y, aunque ha hecho casi toda su carrera en Alemania, también ha bailado en Suiza, Italia y el País Vasco. Aristegi ha sido colaborador del famoso creador Sasha Waltz.

El viaje de Asier Zabaleta ha sido, por así decirlo, de ida y vuelta. El bailarín de Ezkio (Gipuzkoa), tras haber bailado en compañías como Adeshoras y Hojarasca, formó parte, entre 1999 y 2004, de la compañía suiza Alias, en la que también trabajó como coreógrafo. Más tarde volvió al País Vasco, donde creó la compañía Ertza y comenzó una producción sólida y muy personal, que lo ha convertido en una indiscutible referencia en el panorama de la danza contemporánea vasca.

La gasteiztarra Idoia Zabaleta estudió danza contemporánea e improvisación en Barcelona, Ámsterdam y Nueva York. Tras su paso por la compañía Mal Pelo, abrió su propia compañía, Moaré, y se concentró en el trabajo de creación. Es licenciada en Biología. Su obra interdisciplinaria se basa en la interacción creadora entre artistas. En 2008, Zabaleta y Juan González crearon Azala, un espacio de investigaciones escénicas en la que la gasteiztarra actualmente se encarga de las labores de gestión, promoción y difusión. Gracias a los proyectos que mantiene con creadores del circuito internacional, Zabaleta muestra sus obras en todo el mundo.

En el caso de Ion Munduate, el cuerpo es un recurso creativo tan valioso como otras estructuras y materiales. Munduate se formó en París, Bélgica y Londres. Ha realizado investigaciones en los ámbitos del videoarte y la performance. En Arteleku, ha sido responsable, junto con Blanca Calvo, del programa Mugatxoan. Las creaciones de la coreógrafa Matxalen Bilbao también se basan fundamentalmente en el cuerpo. Vive y trabaja en Bilbao. Sus coreografías se caracterizan por una estética cuidada y el uso de músicas contemporáneas. La gasteiztarra Blanca Arrieta, por su parte, explota al máximo las posibilidades comunicativas que ofrece el cuerpo. Ha creado obras muy significativas tanto con su propia compañía, Ciento Cincuenta Cuerdas, como con la Irish Modern Dance Company. La labor creativa de Natalia Monge, cuyas obras sobresalen por su humor y tono provocativo, está íntimamente ligada a la compañía Organik. La labortana Pantxika Telleria se ha dedicado sobre todo a la creación para niños y niñas en la compañía Elirale, pero también le debemos varios ensayos de reconstrucción y aproximación entre las danzas vascas y la danza contemporánea.

Idoia Zabaleta gasteiztarrak dantza berria eta inprobisazioa ikasi zituen Bartzelonan, Amsterdamen eta New Yorken. Mal Pelo konpainiarekin aritu zen dantzan eta, ondoren, Moare bere konpainiarekin sorkuntzan buru-belarri dihardu. Biologian lizentziatua da; diziplinarteko eta artisten artean interakzioa eta sorkuntza-lanak sustatu ditu. 2008an, Juan Gonzálezekin batera, Azala eszena ikerketa-gunea sortu zuen eta, ordutik, gunea kudeatzen du. Nazioarteko hainbat sortzailerekin dituen proiektuak tarteko, han eta hemen aurkezten ditu bere lanak.

Gorputza, bestelako materialekin eta instalazioekin batera, arte-sorkuntzarako tresna da Ion Munduaterentzat. Parisen, Belgikan eta Londresen, besteak beste, trebatu zen dantzan. Batik bat bideoaren eta performancearen alorrean ikerketa- eta ekarpen-lanetan dabil. Mugatxoan programa kudeatu zuen Artelekun Blanca Calvorekin batera. Matxalen Bilbao sorkuntzarako oinarria gorputzean bertan jartzen duen koreografoa da; egoitza Bilbon du. Estetika zaindua eta musika berriak baliatzen ditu bere gorputza dantzan jartzeko. Blanca Arrieta gasteiztarrak, berriz, gorputzak komunikatzeko dituen baliabide guztiak ustiatzeko xedea du, eta Ciento Cincuenta Cuerdas bere konpainiarekin eta Irish Modern Dance konpainiarekin elkarlanean zenbait lan nabarmen egin ditu. Organik taldearen bidez plazaratzen ditu Natalia Mongek bere lanak. Probokazioa eta umorea darie bere sorkuntzei. Pantxika Telleria lapurtarrak Elirale konpainiarekin helduentzako eta umeentzako lanak sortu ditu; halaber, euskal dantzaren tradiziozko sistemak ulertu eta ikuspegi garaikidez birsortzeko saiakerak egin ditu.

Iker Gómez antzerki fisikoa deritzana jorratuz ezagutzera ematen ari da. Suitzako Ballet Nazionalean, Alemaniako Resenzurg Tanztheater eta Katalunian Gellabert-Azzopardi konpainietan aritu da. Bere lanetan eszena-zuzendaritza, koreografia eta ikus-entzunezko sormenak uztartu ohi ditu eta, dadaismotik eta dantza klasikotik abiatuz, dantza fisikoa eta ikus-entzunezkoak barne biltzen dituzten sorkuntzak plazaratzen ditu. Egungo estetikaz jantzitako gorputz-hizkuntza fisikoa darabil Judith Argomanizek Lasala konpainian. Igor Calongek eszena-proposamen berritzaileak eginez ibilbide artistiko berriak sustatzea du helburu Cielo Raso konpainiaren bidez. Eva Guerrerok, bere aldetik, dantza, antzerkia, bideo-dantza, performancea eta narratiba berrien eremuan, gorputzetik abiatzen den sorkuntzaren alorrean dihardu Doos kolektiboan. Olatz de Andrés, berriz, Lõkke konpainiarekin proiektu koreografikoetan eta pedagogikoetan aritzen da dantza eta mugimendua tresna nagusi dituela.

**30.** *The Big Game*, Lôkke konpainia. 2018.

**30.** *The Big Game*, Compañía Lôkke. 2018.

Iker Gómez se ha dado a conocer a través de su trabajo en el ámbito de lo que se conoce como teatro físico, que ha cultivado fundamentalmente en el Ballet Nacional de Suiza, en el Resenzurg Tanztheater de Alemania y en la compañía catalana Gellabert-Azzopardi. En su trabajo, Gómez compagina la dirección de escena, la coreografía y la creación audiovisual, y, con un tono marcadamente dadaísta y a partir de técnicas clásicas, ofrece creaciones en las que la danza física convive perfectamente con los audiovisuales. El lenguaje estético de Judith Argomaniz, bailarina de la compañía Lasala, es sustancialmente físico y actual. Del mismo modo, en la trayectoria artística de Igor Calonge, que forma parte de la compañía Cielo Raso, se suceden las propuestas más novedosas. Eva Guerrero, por su parte, trabaja en el ámbito de la creación que, partiendo de distintos lenguajes (danza, teatro, videodanza, performance, narración...), se sirve fundamentalmente de la expresión corporal, y ha desarrollado su carrera en el colectivo Doos. Finalmente, la danza y el movimiento son las herramientas principales con las que Olatz de Andrés y la compañía Lôkke desarrollan sus proyectos coreográficos y pedagógicos.


30

# Dantza-egutegia

## TOKIAN TOKIKO DANTZA TRADIZIONALA

### OTSAILA-MARTXOA-APIRILA

- **Otsailak 3, San Blas:** txulalai Guardian.
- **Otsaila, martxoa eta apirileko larunbatetan eta igandeetan:** maskaradak Zuberoan.
- **Igande inaute:** talai-dantza Amezketan, txantxo-dantza Abaltzisketan, zahagi-dantza Markina-Xemeinen, sorgin-dantza Antzuolan, kaskarotak Uztaritzen.
- **Astearte inaute**: zortzikoa Lantzen, sagar-dantza Arizkunen, momotxorroak Altsasun.
- **Pazko igandea**: bolantak Luzaiden.

### MAIATZA

- **Maiatzak 3, Santikutz**: ezpata-dantza Legazpin.
- **Maiatzak 15, San Trokaz:** dantzari-dantza eta erregelak Abadiñon.
- **Asenzio**: Loinazko San Martinen ezpata-dantza Beasainen.

### EKAINA

- **Corpus**: Corpus dantzak Oñatin, Bestaberri Heletan.
- **Ekainak 23**: soka-dantza Donostian, Zarautzen, Irunen; San Juanen kantaita Urdiainen.
- **Ekainak 24, San Joan**: bordon-dantza Tolosan, dantzak Guardian, mutil-dantzak Arizkunen, axeri-dantza Andoainen.
- **Ekainak 29, San Pedro**: dantzari-dantza eta erregelak Berrizen, kaxarranka eta Donibaneko aurreskua Lekeition, trapatan Donezteben.

### UZTAILA

- **Uztailak 2, Santa Isabel**: ezpata-dantza Antion, Zumarragan.
- **Uztailak 4**: aurreskua Hermua-Larrean.
- **Uztailak 7, San Fermin**: ezpata-dantza Lesakan.
- **Uztailak 16, Karmen**: ezpata-dantza, brokel-dantza eta soka-dantza Añorgan.
- **Uztaileko hirugarren larunbata**: mairuaren alardea eta trokeo-dantzak Antzuolan.
- **Uztailak 26, Santa Ana**: santaneroen esku-dantza Ordizian.

### ABUZTUA

- **Abuztuak 3, San Esteban**: bordon-dantza eta makil-dantzak Beran.
- **Abuztuak 5, Ama Birjina zuria**: arku-dantza Lanestosan, zortzikoa Gasteizen.



# Calendario de danzas

## DANZA TRADICIONAL LOCAL

### FEBRERO-MARZO-ABRIL

- **3 de febrero**: San Blas: *txulalai* en Guardia (Araba).
- **Los sábados y domingos de febrero, marzo y abril**: mascaradas en Zuberoa.
- **Domingo de carnaval**: *talai-dantza* en Amezketa, *txantxo-dantza* en Abaltzisketa (Gipuzkoa), *zahagi-dantza* en Markina-Xemein (Bizkaia) , *sorgin-dantza* en Antzuola (Gipuzkoa); *kaskarot* en Uztaritz (Lapurdi).
- **Martes de carnaval**: *zortziko* en Lantz (Navarra), *sagar-dantza* en Arizkun (Navarra), *momotxorros* en Altsasu (Navarra).
- **Día de la Ascensión**: volantes en Luzaide (Navarra).

### MAYO

- **3 de mayo, fiesta de la Santa Cruz**: *ezpata-dantza* en Legazpi (Gipuzkoa).
- **15 de mayo, San Torcuato**: *dantzari-dantza* y *erregelak* en Abadiño (Bizkaia).
- **Asensio**: *ezpata-dantza* en San Martín de Loynaz, Beasain (Gipuzkoa).

### JUNIO

- **Día del Corpus**: danzas del Corpus en Oñati (Gipuzkoa); *Bestaberri* en Heleta (Lapurdi).
- **23 de junio**: *soka-dantzas* en Donostia/San Sebastián, Zarautz e Irun (Gipuzkoa); canto de San Juan *(San Joanen kantaita)* en Urdiain (Navarra).
- **24 de junio, San Juan**: *bordon-dantza* en Tolosa (Gipuzkoa), danzas en Guardia (Araba), *mutil-dantzas* en Arizkun (Navarra), *axeri-dantza* en Andoain (Gipuzkoa).
- **29 de junio, San Pedro**: *dantzari-dantza* y *erregelak* en Berriz (Bizkaia); *kaxarranka* y *aurresku* de San Juan en Lekeitio (Bizkaia); tratrapatán en Doneztebe (Navarra).

### JULIO

- **2 de julio, Santa Isabel**: *ezpata-dantza* en La Antigua, Zumarraga (Gipuzkoa).
- **4 de julio**: *aurresku* en Hermua-Larrea (Araba).
- **7 de julio, San Fermín**: *ezpata-dantza* en Lesaka (Navarra).
- **16 de julio, Carmen**: *ezpata-dantza, brokel-dantza y soka-dantza* en Añorga (Gipuzkoa).
- **Tercer sábado de julio**: Alarde del Moro y *trokeo-dantza* en Antzuola (Gipuzkoa).
- **26 de julio, Santa Ana**: *esku-dantza* de santaneros Ordizia (Gipuzkoa).

### AGOSTO

- **3 de agosto, San Esteban**: *bordon-dantza y makila-dantza* en Bera (Navarra).
- **5 de agosto, Nuestra Señora de la Virgen Blanca**: danza de varas en Lanestosa (Bizkaia); *zortziko* en Vitoria-Gasteiz.
- **10 de agosto**, **San Lorenzo**: danzas de San Juan en Berastegi (Gipuzkoa); danzas de San Lorenzo en Pamplona.

- **Abuztuak 10, San Lorentzo**: San Juan dantzak Berastegin, San Lorentzo dantzak Iruñean.
- **Abuztuak 11, San Tiburtzio**: ezpata-dantza eta ingurutxoa Leitzan.
- **Abuztuak 15, Ama Birjina**: ezpata-dantza eta aurreskua Begoñan, Bilbon.
- **Abuztuak 16, San Roke**: San Roke dantza Deban.
- **Abuztuak 24, San Bartolome**: soka-dantza Elgoibarren.

IRAILA

- **Irailak 8, Ama Birjina**: dantzari-dantza Izurtzan, Muskildako Ama Birjinaren dantzak Otsagabian, Arrateko Amaren dantzak Eibarren.
- **Irailak 29, San Migel**: dantzari-dantza Iurretan, ezpata-dantza Markina-Xemeinen, paloteadoa Cortesen.
- **Iraileko azken asteburua**: Aldapako San Ferminen ezpata-dantza Iruñean.

URRIA

- **Urriko lehen igandea:** Errebonbiloen aurreskua Elorrion, ingurutxoa Amezketan, gorulariak Iurretan.

## DANTZA TRADIZIONALEN JAIALDIAK

- **Iruñea-Eibar**: *Ezpalak* Dantza Tradizionalaren Nazioarteko Jaialdia (maiatzeko azken asteburua).
- **Donostia**: *Lauarin* Nazioarteko Folklore Jaialdia (ekaineko laugarren asteburuan).
- **Portugalete**: Nazioarteko Folklore Jaialdia (uztaileko laugarren astean).
- **Galdakao**: *Folklore Bizian* Nazioarteko Folklore Jaialdia (uztaileko hirugarren astean).
- **Irun**: Bidasoaldeko Gazteen Nazioarteko Folklore Jaialdia (uztaileko hirugarren astean).

## BALLET- ETA DANTZA-JAIALDIAK

- **Biarritz**: *Maitaldia* (irailean).
- **Bilbo**: *Dantzaldia* (udazkenean).
- **Donostia, Irun, Errenteria, Baiona**: *Dantza Hirian* (irailean).
- **Bilbo**: *Lekuz leku* (ekainean).

## DANTZALDI IREKIAK

- **Iruñea, Gasteiz, Bilbo, Donostia** eta **Baiona**ko jaietan.
- **Durango**: *Dantzaldi Ibiltaria.*
- Patxi eta Konpainia, Aiko taldea, Errebal, Herrixa Dantzan.
- **Gasteiz**: *Dantza Plazan*, maiatzetik urrira bitarteko asteburuetan eta *Ilunabarrean dantzan* Oihanederren.
- **Bilbo**: Urbeltzen *Dantza Ganbara*, Kafe Antzokian, hileko lehen asteazkenetan.



- **11 de agosto, San Tiburcio**: *ezpata-dantza* e *ingurutxo* en Leitza (Navarra).
- **15 de agosto, día de Nuestra Señora**: *ezpata-dantza* y *aurresku* en Begoña, Bilbao.
- **16 de agosto, San Roque**: danza de San Roque en Deba (Gipuzkoa).
- **24 de agosto, San Bartolomé**: *soka-dantza* en Elgoibar (Gipuzkoa).

SEPTIEMBRE

- **8 de septiembre, día de Nuestra Señora**: *dantzari-dantza* en Izurtza (Bizkaia); danzas en honor a la Virgen de Muskilda, Otsagabia (Navarra); danzas en honor a la Virgen de Arrate, Eibar (Gipuzkoa).
- **29 de julio, San Miguel**: *dantzari-dantza* en Iurreta (Bizkaia), paloteado en Cortes (Navarra).
- **Último fin de semana de septiembre**: *ezpata-dantza* de San Fermín de Aldapa, Pamplona.

OCTUBRE

- **Primer domingo de octubre**: *aurresku* de los *errebombillos* en Elorrio (Bizkaia); *ingurutxoa* en Amezketa (Gipuzkoa); *gorulari-dantza* en Iurreta (Bizkaia).

## FESTIVALES DE DANZAS TRADICIONALES

- **Pamplona y Eibar (Gipuzkoa)**: *Ezpalak*, Festival Internacional de Danzas Tradicionales (último fin de semana de mayo).
- **Donostia/San Sebastián**: *Lauarin*, Festival Internacional de Folclore (último fin de semana de junio).
- **Portugalete (Bizkaia)**: Festival Internacional de Folclore (última semana de julio
- **Galdakao (Bizkaia)**: *Folklore Bizian*, Festival Internacional de Folclore (tercer fin de semana de julio).
- **Irun (Gipuzkoa)**: Festival Internacional de Folclore Juvenil del Bidasoa (tercera semana de julio).

## FESTIVALES DE BALLET Y DANZA

- **Biarritz (Lapurdi)**: *Maitaldia* (en septiembre).
- **Bilbao**: *Dantzaldia* (en otoño).
- **Donostia/San Sebastián, Irun y Errenteria (Gipuzkoa), Bayona**: *Dantza Hirian* (en septiembre).
- **Bilbao**: *Lekuz leku* (en junio).

## BAILES

- En las fiestas de **Pamplona, Vitoria-Gasteiz, Bilbao, Donostia/San Sebastián y Bayona**.
- **Durango (Bizkaia)**: *Dantzaldi Ibiltaria*.
- Patxi eta Konpainia, grupo Aiko, Errebal, Herrixa Dantzan.
- **Vitoria-Gasteiz**: *Dantza Plazan,* los fines de semana entre mayo y octubre, e *Ilunabarrean dantzan* en Oihaneder.
- **Bilbao**: *Urbeltzen Dantza Ganbara,* en el Kafe Antzokia, el primer miércoles de cada mes.

# Bibliografia laburra
# Bibliografía breve


- Aranburu Urtasun, Mikel (2000): *Danzas y bailes de Navarra.* Pamplona: Gobierno de Navarra.
- Bidador, Joxemiel (2005): *Dantzaren erreforma Euskal Herrian*. Bilbo: Bilboko Udala, Kultura eta Euskara Saila.
- Bikandi, Sabin (2009): *Alejandro Aldekoa: Master of Pipe and Tabor Dance Music in the Basque Country*. Reno: Center for Basque Studies - University of Nevada.
- Fernández de Larrinoa, Kepa (1998): *Fronteras y puentes culturales. Danza tradicional e identidad social*. Pamplona: Pamiela.
- Fernández de Larrinoa, Kepa (2003): *Calendario de fiestas y danzas tradicionales en el País Vasco* (Kepa Fdez. De Larrinoa, dirección y estudio preliminar). Vitoria-Gasteiz: Gobierno Vasco.
- Guilcher, Jean-Michel (1984) : *La tradition de danse en Béarn et Pays basque français*. Paris : La Maison des sciences d'homme.
- Irigoien, Iñaki (1985): *La danza en el País Vasco.* Bilbao: Caja de Ahorros Vizcaína.
- Itzaina, Xabier (2002) : "Danse et chant en Pays Basque nord", in Denis Laborde (dir.), *Kantuketan, l'univers du chant basque*, (209-252 orr.). Bayonne-Saint-Sébastien : Elkar, Institut Culturel Basque.
- Sagaseta, Migel Angel (2011): *Luzaideko dantzak*. Bilbo: Herritar Berri-Astero/ Baigorri-Gara.
- Truffaut, Thierry (1981) : "La danse en Labourd" in *La danse basque.* Bidart : Lauburu.
- Urbeltz, Juan Antonio (1978): *Dantzak. Notas sobre las danzas tradicionales de los Vascos*. Bilbao: Caja Laboral.
- Urbeltz, Juan Antonio (2001): *Danza vasca. Aproximación a los símbolos*. Lasarte-Oria: Etor-Ostoa.


SAREAN / EN LA RED

- http://dantzan.eus
  Dantzaren inguruko albisteak
  Noticiario acerca de la danza
- http://www.dantzatlas.navarchivo.com
  Nafarroako dantzen atlasa
  Atlas de danzas de Navarra
- https://dantzagune.eus
  Euskal Dantzarien Biltzarra
- http://addedantza.org
  Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkartea
  Asociación de Profesionales de la Danza del País Vasco
- https://www.eke.eus/eu/kultura/dantza
  Euskal Kultur Erakundea
  Instituto Cultural Vasco
- https://www.gipuzkoa.eus/es/web/dantzagunea/
  Gipuzkoako Dantzagunea



**Oier Araolaza Arrieta (Elgoibar, Gipuzkoa, 1972)**

Dantzaria da. *Dantzan.eus* atariaren sortzailea eta editorea da. Kezka eta Argia dantzari taldeetan aritzen da dantzari. Antropologian eta Informazio Zientzietan lizentziatua, Musikologian egin ditu doktorego ikastaroak eta euskal dantza eta genero-identitatea aztertu ditu, 2020an, Gizarte Komunikazioa sailean, UPV / EHUn, defendatu duen doktorego-tesian. Dantzan Ikasi programa abiatu du, UPV/EHUn euskal dantzari buruzko ikasketan saioak eskaini ditu eta Dantzertin, Euskadiko Arte Dramatikoa eta Dantzaren Goi Mailako Eskolan, euskal dantza irakaslea izan da. Eusko Jaurlaritzaren Kulturaren Euskal Kontseiluko kidea da 2010etik.

Es *dantzari*. Es el creador y editor de *Dantzan.eus*. Actúa como *dantzari* en los grupos de danza Kezka y Argia. Licenciado en Antropología y Ciencias de la Información, realizó sus estudios de doctorado en Musicología, y en la tesis que ha defendido en 2020 en el área de Comunicación Social de la UPV/EHU, ha investigado las danzas vascas y la identidad de género. Ha puesto en marcha el programa Dantzan Ikasi, ha ofrecido sesiones de aprendizaje de danzas vascas en la UPV/EHU y ha ejercido de profesor de danzas vascas en Dantzerti, la Escuela Superior de Artes Dramáticas y de Danza de Euskadi. Desde 2010, es miembro del Consejo Vasco de la Cultura del Gobierno Vasco.


**KREDITUAK / CRÉDITOS**

**Euskal Kultura Sailaren edizioa**
**Edición de la Colección Cultura Vasca**
Etxepare Euskal Institutua

**Testua / Texto**
Oier Araolaza Arrieta CC BY-SA

**Gaztelaniazko itzulpena**
**Traducción al castellano**
Ibon Plazaola Okariz

**Edizioa / Edición**
Miriam Luki Albisua

**Maketazioa / Maquetación**
Infotres

**Diseinua / Diseño**
Mito.eus

**Azaleko argazkia / Foto de portada**
Ekaitz Zilarmendi

**Argitalpen urtea / Año de publicación**
2021

**Argazkiak / Fotos**

1. Iñaki Zugasti – Dantzan.eus CC BY-SA.
2. Bligh Barker eta Sydney Crocker. Zumalakarregi Museoa. Gipuzkoako Foru Aldundia / Bligh Barker y Sydney Crocker. Museo Zumalakarregi. Diputación Foral de Gipuzkoa. CC BY-NC-SA 2.5 ES.
3. Christoph Weiditz, 1529. Alemaniako Museo Nazionala / Museo Nacional Germano. CC BY-NC-SA.
4. Indalecio Ojanguren. Guregipuzkoa.eus CC-BY-SA.
5. Vicente Martín. Kutxateka CC BY-SA.
6. Amaiur Aristi – Dantzan.eus CC BY-SA.
7. Oier Araolaza – Dantzan.eus CC BY-SA.
8. Eire Vila – Dantzan.eus CC BY-SA.
9. Iñaki Zugasti – Dantzan.eus CC BY-SA.
10. Jokin Artola – Dantzan.eus CC BY-SA.
11. © Cristian Martinez – EKE.
12. Maite Eizagirre.
13. Amaiur Aristi – Dantzan.eus CC BY-SA.
14. Oier Araolaza – Dantzan.eus CC BY-SA.
15. Felipe Loyola – Dantzan.eus CC BY-SA.
16. Oier Araolaza – Dantzan.eus CC BY-SA.
17. Gorka Bravo.
18. Iñaki Zugasti – Dantzan.eus CC BY-SA.
19. Iñaki Zugasti – Dantzan.eus CC BY-SA.
20. Iñaki Zugasti – Dantzan.eus CC BY-SA.
21. Iñaki Zugasti – Dantzan.eus CC BY-SA.
22. Eire Vila – Dantzan.eus CC BY-SA.
23. David Herraz.
24. Gorka Bravo.
25. Andrej Uspenski.
26. Gorka Bravo.
27. José Usoz.
28. Gorka Bravo.
29. Jan Pol.
30. Jesus Robisco.

**LG D 01207-2020**

**Etxepare Euskal Institutua**

Etxepare Euskal Institutua erakunde publiko bat da. Gure helburua nazioartean euskara, euskal kultura eta sorkuntza sustatzea eta ezagutzera ematea da, eta, horien eskutik, beste herrialdeekin eta kulturekin harreman iraunkorrak eraikitzea. Horretarako kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditugu, eta sortzaile, artista nahiz kultura sektoreetako profesionalen mugikortasuna errazten dugu, baita euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntza ere. Halaber, nazioarteko eragile kulturalekin eta akademikoekin elkarlana bultzatzen dugu. Zeregin horietan guztietan Euskadiko kanpo ordezkaritzak gertuko bidelagun ditugu.

**Etxepare Euskal Institutua**

Etxepare Euskal Institutua es una entidad pública. Nuestro fin es promover y dar a conocer internacionalmente el euskera, la cultura y la creación vascas, y construir relaciones duraderas con otros países y culturas a través de ellas. Para ello fomentamos actividades artísticas de calidad, y apoyamos la movilidad de creadores/as, artistas y profesionales de los sectores culturales, así como la enseñanza del euskera y de la cultura vasca. Fomentamos, asimismo, la colaboración con agentes internacionales tanto en el ámbito cultural como en el académico. En todo ello trabajamos en estrecha colaboración con las delegaciones de Euskadi en el exterior.

ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA

BASQUECULTURE.EUS
THE GATEWAY
TO BASQUE CREATIVITY
AND CULTURE

BASQUE.

Europarrok kultura-ondare oparoa partekatzen dugu, mendeetan zehar izan ditugun trukeen eta migrazio-fluxuen ondorioa dena. Hala, bertako hizkuntzen eta kulturen aniztasuna, berezi egiten gaituen horri esker guztiok joritua, Europak duen balio handienetako bat da. BASQUE. lurralde baten isla da (euskararen lurraldearena), historia baten isla, mundua ulertzeko modu batena, gurea. Bere sustraiez harro dagoen kultura baten adierazpidea da, ikuspegi berri bat eskaintzeko tradizioa eta abangoardia uztartzen jakin duen kultura batena. BASQUE. euskal kultura eta sorkuntza garaikideari begiratzeko leihoa da. Musikaren, dantzaren, antzerkiaren, zinemaren, literaturaren, artearen eta beste adierazpide batzuen bidez euskal kultura eta euskara ezagutzera emateko leihoa. Eta, era berean, sormenari zabalik dagoen leku bat da, partekatzeko, zubiak eraikitzeko eta solaserako, kulturen artean elkar aditzen lagunduko diguten elkarrizketa berriei bide emateko.

Los europeos compartimos una rica herencia cultural como resultado de siglos de intercambio y flujos migratorios. La diversidad lingüística y cultural es uno de los principales valores de Europa a la que todas y todos contribuimos desde nuestra singularidad. BASQUE. es el reflejo de un país (la tierra del euskera), de una historia, de una manera de entender el mundo, la nuestra. La expresión de una cultura orgullosa de sus raíces que ha sabido abrazar tradición y vanguardia para ofrecer una nueva mirada. BASQUE. es una ventana desde la que asomarse y descubrir la cultura y la creación contemporánea vasca a través de la música, la danza, el teatro, el cine, la literatura, el arte... Y su lengua, el euskera. Y, a su vez, un lugar abierto a la creatividad desde el que compartir, tender puentes y generar nuevas conversaciones que contribuyan al diálogo entre culturas.

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA